

**Iranzu LOPEZ DE DICASTILLO  
URRA**

**EDUCACIÓN PLÁSTICA  
HEZKUNTZA PLASTIKOA**

**EDUCACIÓN ARTÍSTICA Y CULTURA  
VISUAL: PROPUESTA DIDÁCTICA  
PARA LA EDUCACIÓN PRIMARIA**

**HEZKUNTZA ARTISTIKOA ETA  
KULTURA BISUALA: LEHEN  
HEZKUNTZARAKO PROPOSAMEN  
DIDAKTIKOA**

**TFG/GBL 2013**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria /  
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua***



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**HEZKUNTZA ARTISTIKOA ETA KULTURA  
BISUALA: LEHEN HEZKUNTZARAKO  
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

**EDUCACIÓN ARTÍSTICA Y CULTURA VISUAL:  
PROPUESTA DIDÁCTICA PARA LA EDUCACIÓN  
PRIMARIA**

Iranzu LOPEZ DE DICASTILLO URRRA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Iranzu LOPEZ DE DICASTILLO URRRA

**Izenburua / Título**

Hezkuntza Artistikoa eta kultura bisuala: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktikoa / Educación Artística y cultura visual: propuesta didáctica para la Educación Primaria

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria/ Director-a**

Nerea DE DIEGO MURILLO

**Saila / Departamento**

Psicología eta Pedagogía saila / Departamento de Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberrik / Primavera

---

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman dit aniztasun ikaragarriko irudiez itota dagoen gizarte bisual baten beharrak ezagutzeko.

Modu berean, behar horiek aurre egiteko kultura bisualaren ikasketa Hezkuntza Sisteman integratzea ezinbestekoa ulertu dut.

Didaktika eta diziplinako moduluak lan hau burutzeko ezinbestekoa zen begirada kritikoa eraikitzen lagundu dit; forma bisualek eskaintzen diguten esperientzia bisualak, gure identitatean eragiten duen esperientzia bat dela kontziente izatera. Errealitate hori hezkuntza esparrutik lantzeko ezinbestekoa den Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berria ezagutzeko aukera izan dut ere.

Halaber, Practicum moduluaren bitartez eta Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berri horretan oinarrituz, kultura bisuala Lehen Hezkuntzako ikasleekin lantzea ahalbidetzen duen proposamen didaktiko bat diseinatzeko eta aurrera eramateko aukera izan dut.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES” eta “CONCLUSIONES” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen duen arabera, Graduaren bukaeran hizkuntza koofizial bat ezagutzen duten ikasle elebidunek C1 maila ere izan behar dute erkidegoaren beste hizkuntzan, alegia, gure kasuan, euskaran. Hori dela eta, euskaraz hizkuntza gaitasuna erakusteko, hitzaurrea eta lanaren azken ondorioak gure hizkuntzan idatziko dira.

---

## Laburpena

Adin goiztiarretatik, ikasleak aniztasun handiko forma bisualen zabalkuntzan parte hartzen duten informazio eta komunikazio teknologiekin harremanak izaten hasten dira. Forma bisual hauek mundua eta gizakia proiektatzen duten heinean, hauek eskaintzen duten esperientzia bisualak hauek kontsumitzen dituzten pertsonen identitatean eragiten du.

Hezkuntza Sistemak errealitate garaikide honi aurre egin behar dio eta giza irudikatze modu berriei erantzun bat eman; kultura bisuala Hezkuntza Sistematan integratzen duen erantzuna hain zuzen ere. Inklusio honek diziplina arteko izaera duen hezkuntza ikuspuntu berri baten garapena suposatzen du, zeinen honen bitartez, Hezkuntza Artistikoa errepresentazio kulturalen bide bezala ulertu ez ezik, honen bitartez ikasleen identitateak definituak izango dira.

Lan honek ikuspuntu berri honetan oinarritutako proposamen didaktiko baten garapena aurkezten du.

*Hitz gakoak: Hezkuntza Sistema; kultura bisuala; hezkuntza ikuspuntu berria; identitatea; proposamen didaktikoa.*

## Resumen

Desde edades tempranas los y las estudiantes comienzan a tener contacto con las tecnologías de la información y de la comunicación, las cuales contribuyen en la divulgación de una gran gama de formas visuales. A través de la manera en la que estas proyectan el mundo y lo humano, la experiencia visual que estas ofrecen influye en la formación de la identidad de sus consumidores.

El Sistema Educativo debe afrontar esta realidad contemporánea y dar una respuesta a las nuevas formas de visualizar lo humano, lo que exige la introducción de la Cultura Visual dentro de este. Esta inclusión supone el desarrollo de una nueva perspectiva educativa de carácter interdisciplinar, la cual entiende la Educación Artística como medio de representación social a través del cual la identidad de los y las estudiantes es definida.

Este trabajo presenta el desarrollo de una propuesta didáctica basada en esta nueva perspectiva.

---

*Palabras clave: Sistema Educativo; cultura visual; nueva perspectiva educativa; identidad; propuesta didáctica.*

## **Abstract**

From an early age, students start having contact with information and communication technologies, which contribute to spread a big range of visual forms. Through the way they project the world and the human, the visual experience that they offer has influence on the training and the identity of their consumers.

The Education System must face this contemporary reality and respond to the new ways of visualizing the human, which demands the introduction of the visual culture within it. This inclusion supposes the development of a new interdisciplinary educative perspective, which understands Arts Education as means of social representation through which the identity of the students is defined.

This work presents the development of a didactic proposal based on this new perspective.

*Keywords:* Education System; visual culture; new educative perspective; identity; didactic proposal



---

## AURKIBIDEA

<b>Antecedentes, objetivos y cuestiones</b>	<b>1</b>
<b>1. Marko teorikoa: euskarria eta irakaslegoaren inplikazioa</b>	<b>4</b>
1.1. Kultura bisuala eta identitatea	4
1.2. Kultura bisualaren garrantzia Hezkuntza Sistematan	6
1.3. Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu aldaketa	7
1.3.1. <i>Kultura bisuala</i>	10
1.3.2. <i>Hezkuntza Artistikoa errepresentazio kulturalen ikasketa bezala</i>	11
1.3.3. <i>Kognizio interaktiboa</i>	12
1.3.4. <i>Formaren testuinguraketa</i>	14
1.4. Curriculumaren berrantolaketa	17
<b>2. Materialak eta metodoak</b>	<b>23</b>
2.1. Proposamena	23
2.1.1. <i>Metodologia</i>	25
2.2. Jarduerak	26
1. <i>Jarduera: Komunikabideen kutxa</i>	27
2. <i>Jarduera: Kono magikoa:</i>	33
3. <i>Jarduera: Irudiak interpretatzen</i>	34
4. <i>Jarduera: Emozioak irudikatzen</i>	41
5. <i>Jarduera: Gezuraren jolasa</i>	46
6. <i>Jarduera: itxurak gaindituz</i>	52
7. <i>Jarduera: Iragarkiak aztertzen</i>	58
8. <i>Jarduera: Gure asmakizunak!</i>	67
2.3. Ebaluazioa:	80
2.3.1. <i>Irakaslearen eta proposamen didaktikoaren ebaluazioa</i>	80
2.3.2. <i>Ikasleen ebaluazioa</i>	80
<b>3. Emaidzak eta eztabaida</b>	<b>82</b>
3.1. Lan proiektua gauzatu baino lehen:	82
3.2. Lan proiektua egiten ari nuen bitartean	84
3.3. Proiektua gauzatu ondoren:	87
3.3.1. <i>Proiektuaren ebaluazioa:</i>	87
3.3.2. <i>Proiektua hobetzeko proposamena:</i>	88

---

3.4. Esperientziaren inguruko hausnarketa pertsonala	90
<b>Conclusiones</b>	<b>93</b>
<b>Referencias</b>	<b>95</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>97</b>
<b>Eranskina 1</b>	<b>98</b>
<b>Eranskina 2</b>	<b>107</b>
<b>Eranskina 3</b>	<b>108</b>
<b>Eranskina 4</b>	<b>112</b>
<b>Eranskina 5</b>	<b>118</b>

## **ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES**

El ser humano del siglo XXI vive en un mundo cada vez más impregnado de imágenes. Imágenes que las nuevas tecnologías de la información y comunicación, por y a través de diferentes motivos y maneras, han ayudado a divulgar. La gran gama de formas visuales que encontramos en los medios de comunicación, en la publicidad, en películas y videoclips, o incluso dentro del Sistema Educativo (en los libros de texto o en productos como carpetas escolares y estuches), representan la ubicuidad de estas formas visuales al igual que la libertad con la que estas atraviesan diferentes fronteras (Efland, 2005).

En la medida en que estas formas visuales son productos sociales, productos creados por el ser humano, la experiencia visual que estas nos ofrecen influye en la formación de la identidad de las personas que las consumen. Las imágenes, nos dan la oportunidad de mirar y entender el mundo desde la mirada del autor o autora, una mirada subjetiva a través de la cual se reflejan y transmiten las ideologías, las creencias o incluso los sueños y miedos de este o esta. De esta manera, la cultura visual al igual que su estudio y concienciación no pertenece solo a los interesados o especializados en el arte visual, todos formamos parte de ella.

El Sistema Educativo debe afrontar la realidad contemporánea y satisfacer sus necesidades, debe dar una respuesta a las nuevas formas de visualizar lo humano.

Este trabajo propone la introducción de la cultura visual dentro del Sistema Educativo como respuesta a esta necesidad social, puesto que este fenómeno va más allá de las tradicionales formas de las Bellas Arte y del lenguaje de la estética. Por medio de las interpretaciones personales, la cultura visual analiza críticamente los significados sociales y culturales que transmiten las imágenes en relación con el contexto.

Esta inclusión supone el desarrollo de una nueva perspectiva educativa en la que la Educación Artística se trabaja como medio para la comprensión de las

---

representaciones culturales. Consecuentemente, la introducción de la cultura visual entre los contenidos del actual *currículum*, exige, por una parte, una escuela y unos docentes capaces de adaptarse a las necesidades de una sociedad dinámica, lo que hoy en día supone superar la visión cognoscitiva del desarrollo. Por otra parte, exige un análisis sobre el *currículum* actual y los aspectos modificables de este para la adecuada inclusión. En este, la perspectiva del *currículum* es redirigida hacia la importancia de considerar y definir la identidad de los y las estudiantes a través de las artes visuales, las cuales se trabajarán desde un nuevo campo de estudios de carácter interdisciplinario.

Igualmente, este trabajo incluye una parte práctica en la que se describe la adaptación del proyecto "Gora Gutenberg!" (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) y su desarrollo como respuesta a la necesidad aquí presentada. Este proyecto de carácter interdisciplinario, fue llevado a cabo con los y las estudiantes de segundo curso de Educación Primaria del colegio público "Ezkaba", perteneciente al municipio navarro Ansoáin.

El objetivo principal de este nuevo proyecto es introducir a los y las estudiantes dentro del estudio de la cultura visual. Mediante esta introducción, las formas visuales serán entendidas como medio de representaciones culturales, a través del estudio de estas la identidad de los y las estudiantes será definida.

Para ello, se trabajará sobre tres ideas principales. La primera será entender las imágenes como medio de comunicación, como transmisor de información, la cual puede ser interpretada de manera diferente dependiendo la perspectiva, contexto y experiencias personales de cada individuo/a. A continuación, las formas visuales serán entendidas como representaciones culturales y como mediadoras e influyentes de la visión que tenemos sobre la realidad. Por último, se desarrollará el comportamiento y pensamiento crítico de los y las estudiantes ante la experiencia que las formas visuales nos ofrecen, superando así el formalismo y la apariencia.

Para lograr estos objetivos, trabajamos los diferentes tipos de comunicación (dentro de los cuales se destacará la comunicación a través de las formas visuales) y los medios de comunicación. En el desarrollo de este último, se

hará especial hincapié en la manipulación de información y en las características de la publicidad; en sus objetivos y en las estrategias que esta utiliza para lograrlos, al igual que en el gran espacio que esta abarca en nuestra sociedad.

Esta propuesta es solo un primer paso dentro de un proceso de concienciación gracias al cual, no solo se formarían personas capaces de interpretar y comunicar a través de la educación visual, sino que también se desarrollaría el pensamiento crítico de los y las estudiantes. De esta manera, formaríamos personas conscientes de que las imágenes son productos socioculturales, y que por lo tanto estas no se limitan a lo explícito de la forma, éstas también intervienen en la transmisión de ideologías. Personas conscientes de que estas experiencias visuales influyen en nuestras miradas, en nuestra manera de mirar el mundo y por lo tanto, en nuestra identidad.

---

# 1. MARKO TEORIKOA: EUSKARRIA ETA IRAKASLEGOAREN INPLIKAZIOA

## 1. 1. Kultura bisuala eta identitatea

XXI. mendeko gizakia gizarte bisual batean bizi da. Informazio eta komunikazio teknologia berriek, arrazoi eta bide desberdinen bitartez zabaltzen dituzten aniztasun ikaragarriko irudiez itota dagoen gizarte batean hain zuzen ere. Komunikabideetan, iragarkietan, pelikuletan, nahiz Hezkuntza Sistematan ere (testuliburuetan edo motxila eta kapeta bezalako produktuetan) aurkitzen ditugun mota desberdinetako irudiek forma bisual hauen nonahikotasuna zein muga desberdinak zeharkatzeko duten askatasuna islatzen dute (Efland, Infacia y cultura visual en el, 2005).

Irudiak errealitatea ulertzeko, begiratzeko eta irudikatze modua islatzen duten giza produktuak dira, bai eta ondorioz, garai jakin bateko gizartearen irudikapenaren isla ere. Ikuspuntu honetatik, begiratzea bezain naturala dirudien ekintza bat, ez da hasiera batean dirudi dezakeen prozesu inuzente bat, forma bisualek egiten dituzten munduaren eta gizakiaren proiektzio horien bitartez, gizartean zehaztuak dauden patroikulturalak transmititzen diren heinean.

Garaiaren arabera, pertsonak irudi jakin batzuez inguratuta bizitzera ohitzen gara. Irudi horiek guk geuk osatu dugun gizartea irudikatzen duten irudiak diren heinean, hauek garai jakin horretan indarrean dauden estereotipoak, rolen banaketa, generoaren ideiak, edertasun kanona, zein ideologiak transmititzen gaituzten giza produktuaz inguratuta bizitzera ohitzen gara. Modu berean, desegokitzat hartzen ditugu "normaltasun" horretatik ihes egiten duten irudiak, iritzi publikotik eta garaiko gustu eta ideologiatik ihes egiten dutenak hain zuzen ere.

Vygotsky-ren arabera, norbanakoaren garapen emozionala zein intelektuala ezin da gizartearen eraginaren independentea den prozesu bat bezala ulertu. Testuinguru sozialak eta kulturalak pertsona bakoitzak munduan ulertzen duen moduan eta hortaz, bere identitatearen izaeran eragiten dute: "para entender al individuo, primero debemos entender las relaciones sociales en las que éste se desenvuelve" (Wetsch, 1988) . Modu horretan, Vygotsky-k azpimarratzen du,

testuinguruak norbanakoaren garapenaren motorra dela, ezagutza guztiak kanpotik garatzen ditugula, gizartetik, eta ez norberaren barrutik:

"Es necesario que todo aquello que es interno en las formas superiores haya sido externo, es decir, que fuera para otros lo que ahora es para uno mismo. Toda función psicológica superior atraviesa necesariamente una etapa externa en su desarrollo, ya que inicialmente es una función social. Este constituye el problema principal del comportamiento externo e intermo...Cuando nos referimos a un proceso, 'externo' quiere decir 'social'. Toda función psicológica superior ha sido externa porque ha sido social en algún momento anterior a su transformación en una auténtica función psicológica interna<sup>1</sup>" (Wetsch, 1988)

Gizartearen ohiturak, sinesmenak, rolak zein ideologiak islatzen dituzten irudiez inguratuta bizi garen heinean, hauek Vygotsky-ren ikuspuntutik aztertzen baditugu hauek gure identitatean eragitendutela ondorioztatzen dugu. Gure gizartean geroz eta eremu zabalagoa hartzen duten irudi hauek eskaintzen diguten esperientzia, ezin dugu esperientzia emozional edo estetiko batera mugatu; irudiak, kontzienteki edo ez, kontsumitzen dituzten pertsonen identitatearen garapenean ere eragiten dute.

Ángel Rivière- ek (1990) gehitzen du "Aunque la observación informal evidencia que en todas las culturas se utilizan modelos para promover la adquisición de pautas de comportamiento sancionadas por la sociedad, en las explicaciones antropológicas del proceso de socialización en otras sociedades es donde se manifiesta de forma más clara la importancia cultural del aprendizaje por observación. Hasta el punto de que en muchos lenguajes la 'palabra enseñar es la misma que la de la palabra " mostrar", y la sinonimia es literal<sup>2</sup> ". Modu horretan, ikasketa prozesua forma bisualekin ditugun harremanetara eta horien eraginetara lotzen du.

---

<sup>1</sup> Vygotsky, L. S. (1981). *The development of higher forms of attention in childhood*. Wertsch, James V. -ek (1981). *The concept of Activity in Soviet Psychology*. Armonk, Nueva York: Sharpe, M. E. –en zitatua

<sup>2</sup> Reichard, Gladys A.: "social life", F. Boas (ed.)-ek, *General anthropology*, Boston, Heath., 1938, 409-486 –en zitatua.

---

Ondorio berdineraren iristen gara, gizakiaren imitatzeko jokaeraren inguruko teoria desberdinak kontuan hartzen baditugu. "La imitación juega un papel importante en la adquisición de la conducta desviada y de la adaptada. Al observar la conductas de los demás y las consecuencias de sus respuestas, el observador puede aprender respuestas nuevas o variar las características de las jerarquías de respuestas previas, sin ejecutar por sí mismo ninguna respuesta manifiesta ni recibir ningún esfuerzo directo. En algunos casos, el observador puede aprender, de hecho, tanto como el ejecutante<sup>3</sup>" (McBeartry & Marston, 1961). Imitazioaren teorian irudien eta begiradaren papera azpimarratuak geratzen dira.

Ikuspuntu honetatik, gizakiak bere ingurunean ikusten duen hori erreproduzitzeko joera dauka, bai eta modu berean, bere ingurunean dauden irudiek irudikatzen dituzten jarrerak zein jokabideak erreproduzitzeko.

Guzti hau kontuan hartzen badugu, irudiak norbanakoaren mundua ulertzeko moduan eragina duten ideologia igortzaileak bezala definitu daitezke. Modu horretan, ikus kultura zein honen inguruko ikasketak eta hausnarketak ezin ditugu honetan interesatuak dauden edo espezializatuak dauden horiei soilik erantsi. Guztiok ikus kulturaren parte gara, hau ere gure identitatearen parte den bezala.

## **1.2. Kultura bisualaren garrantzia Hezkuntza Sistematan**

Gaur egungo gizakia mundu bisual batean bizi da, mundu batean non, Kerry Freedman parafraseatuz, "como resultado de las producciones de masas y las tecnologías globales, los estudiantes abordan -a través de las artes visuales- un currículo sobre el que ningún grupo tiene control" (Freedman, 2002). *Curriculum* erakargarri honek subjektuek ispiluak balira bezala begiratzen dituzten aniztasun ikaragarritzko irudiak eskaini ez ezik, hauen bitartez gizon eta emakumeen estereotipoen, generoaren, gutxiengoaren edota beste talde sozialen inguruko informazioa eta lezioak eskaintzen ditu; Izan "behar" dugun horren inguruko lezioak.

---

<sup>3</sup> McBeartry, J. F.; Marston, A. R., eta Kanfer, F. H.: "Conditioning a verbal operant in a group setting: Direct vs. vicarious reinforcements", Amer. Psychologist, 1961, 16, 425 (laburpena).



---

Modu horretan, ezin da kultura bisuala ikasle edota hezkuntzatik independentea den fenomeno bat bezala ulertu. Hezkuntza Sistemak errealitate garaikidearen beharretara egokitu behar da, g izakia eta mundua irudikatzeko modu berriei erantzun bat ematea suposatzen duena.

Kultura bisualaren ikasketa curriculum-aren edukien artean txertatzearen beharraz ari gara orduan. Izan ere, fenomeno hau Arte Ederren forma tradizionaletatik baino haratago doa, kultura bisualak interpretazio pertsonalen bitartez, modu kritikoan esanahi sozialak eta kulturalak aztertzen ditu, hauek testuinguruarekin duten harremana kontuan hartuz.

Hurbilketa berri hau proposamen kurrikular berri bezala uler daiteke. Honen helburua, ez da irudien produkziara eta interpretaziora soilik mugatzen. Irudi hauek gizarte esferan zein hauek sortu dituzten gizarte talde edota pertsonen identitate, nahien, gozamen, beldurren, sinesmenen eta irudimenen subjektibotasunean kokatuz, munduaren zein giza den horren irudikapenak landu ez ezik, irudikapen horiek gure burua eta errealitatea begiratzeko moduan duen eragina ere aztertuko da. Modu horretan norbanakoaren identitatea definituz.

### **1.3. Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu aldaketa**

Proposamen berri honek eskatzen duen eraldaketa, ez da gaur egungo curriculumeko<sup>4</sup> eduki edota metodoen eraldaketara mugatzen, baizik eta hezkuntza artistikoa bera ulertzeko moduaren eraldaketa ere suposatzen du. Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berri baten garapenaz ari gara.

Ikuspuntu aldaketa hori gauzatzeko Michael Parson-ek<sup>5</sup> (Hérendez, 1999) Hezkuntza eta Artearen arteko erlazioa eraikitzeke planteatzen dituen ondorengo galderak kontuan hartu ditzakegu:

---


<sup>4</sup>Abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuak Espainiar Estatuko Lehen Hezkuntzarako ezarritakoa eta, martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako ezarri zena.

<sup>5</sup> Parson, M.J. (1996): Interpretación e Investigación en Educación Artística. Curso de Doctorado en el Programa Investigación de la Educación de las Artes Visuales (1994-1996). Facultad de Bellas Artes (mimeo). Barcelona.

**Taula 1.** Michael Parson-ek Hezkuntza eta Artearen arteko erlazioa eraikitzeke proposatzen dituen galderak

Aztertzen den aspektua	Planteatzen diren galderak
Eskolan "artearen egitearen" garrantzia eta helburua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zein da / izan beharko litzake "artearen egitearen" eta artearen historiaren (artearen kritika eta artearen filosofia) arteko harremana?</li> <li>▪ Artearen historia edota praktika erabiltzen al da obra artistikoak ulertzeko? edo modu bereiztuan irakasten dira?</li> </ul>
Ikuspuntu formalistak eta testuinguru kulturalaren garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Obra artistiko baten analisia egiteko, obra horren aspektu bisualak soilik aztertzen dituen ikuspuntu formalista planteatu behar da, edo testuinguru kulturalak aztertuta obra horren esanahia ere aztertzen duen ikuspuntu berri bat?</li> <li>▪ Testuinguru kultural horrek obra eta autorearen egoera eta kokapen aspektuei erreferentzia egin behar diote edota obratik kanpo dagoen horretara zabaldu behar da (botere erlazioak, eskusio modu desberdinak, identitatearekin erlazionatutako aspektuak, generoa, baloreak...)?</li> </ul>
Hezkuntza Artistikoa eta <i>curriculumaren</i> arteko erlazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Artearen beste ikasgaietan integratua dago, edo baztertuta lantzen da?</li> </ul>

Modu berean, Fernando Henández-ek kultura bisuala ulertzen duen Hezkuntza Artistiko bat eraikitzeke planteatzen dituen *curriculumaren* antolatzaileak kontuan hartu ditzakegu Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berria definitzeko:



**Irudia 1.** Curriculumaren antolatzaileak kultura bisualaren ulermenerako (Hérmendez, 1999).

Kerry Freedman-ek (Freedman, 2002) lau ezaugarri atxikitzen dizkio Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu aldaketa honi:

1. Hezkuntza artistikoaren domeinua kultura bisualera zabaltzea.
2. Kultura bisuala esanahi sozialekin duen harremanen arabera ulertzea.
3. Kognizio interaktiboaren ikerketa hezkuntza programazioaren oinarrietako bat izatea.
4. Kultura bisuala formaren testuinguruarekin duen erlazioarekin ulertzea.

Ezaugarri horietako bakoitzak, ikasleen identitatea eta hezkuntza artistikoaren arteko harremanaren aspektu bat azpimarratzen du:

### 1.3.1. *Kultura bisuala*

Hezkuntza Artistikoaren esparru berria kultura bisuala da. Fenomeno honek arte bisual guztiak eta diseinua barne hartzen ditu: Arte Ederrak, arte herrikoia, bideoak, pelikulak, publizitatea, telebista eta beste ikuskizunak, eraikin desberdinen diseinuak, ordenagailuz egindako edota manipulaturako irudiak, zein produkzio eta komunikazio bisualen beste formak.

Walker eta Chaplin-ren <sup>6</sup> arabera, kultura bisualak, gizakien lana, irudimena edo akzioen bitartez eta helburu estetiko, sinboliko, ohiturazkoak edota politiko-ideologikoen arabera sortutako produkzio materialak izango lituzke ikasketa objektu bezala. Hala nola, eraikinak, irudiak (mugimendu zein mugimendurik gabekoak) *mass media*-ko errepresentazioak edota *performance*-ak.

Ikuspuntu honek, kultura bisuala-ren inguruko ikasketak eta kultur ikasketak desberdintzen ditu, bai eta hauen ikas objektua mugatu ere; astamena, usaimena eta entzumenarekin erlazionatuta dauden objektuak kultura bisualetik kanpo geratzen dira. Horrek ez du esan nahi, kultura bisualaren barne sailkatzen ditugun zenbait gaiak zentzumen bat baino gehiagoren erabilpena eskatzen ez dituztenik. (Hérmendez, 1999)

kultura bisuala irakastea, ez da garaian indarrean dagoen arte herrikoia soilik irakastea edota honen onarpen akritikoa, errealitate garaikideari ematen zaion erantzun bat baizik. Modu horretan, kultura bisualaren lanketak arte bisualen

<sup>6</sup> Walker, J.A.; Chaplin, S. (1997): *Visual culture: an introduction*. Manchester University Press. Manchester (Hérmendez, 1999)

---

eraketa ez ezik, hauek osatzen duten multzoaren azterketa ere suposatzen du, esanahi, erlazio, proposamen zein eragin desberdinak sortzea eta ulertzea hain zuzen ere.

Modu horretan, Arte bisualen lanketak, ikasleen jarrera kritikoaren garpena ere eskatzen du. Ikasleek bere egunerokotasunean aurkitzen dituzten irudiak, guk geuk, gizarte honetako biztanleak, osatu dugun gizartea irudikatzen duten irudiak diren heinean, hauek garai jakin horretan indarrean dauden estereotipoak, rolen banaketa, generoaren ideiak, edertasun kanona, zein ideologiak transmisoreak direla kontzienteak izan behar dira. Bai eta hauek gure identitatean duten eragina modu kritikoaz aztertzeke gai izan ere.

Horretarako, anitzak dira ikasleekin gauzatu daitezkeen ariketak: emakumezkoen eta gizonezkoak urte askotan zehar Arte Ederretan edota publizitatean izan duten irudikapenaren arteko konparaketak, iragarkiek irudikatzen eta irudikatzen ez dituzten talde sozialen analisisa, edota hauek bultzatzen eta baztertzen dituzten jarreraren azterketa proposatzen dituzten jarduerak beste batzuen artean.

### *1.3.2. Hezkuntza Artistikoa errepresentazio kulturalen ikasketa bezala*

Hezkuntza Artistikoaren domeinua kultura bisualaren irakaskuntzara zabaltzeak, arte bisualetara lotuta dauden gai sozial zein kulturek hartu duten garrantzia islatzen du.

Fernando Hernández-ek (1999) azpimarratzen du Walker eta Chaplin-ek kultura bisualaren ikerketa eta ikasketa gizartearen zein, denborarekin indarrean egon diren eta transformatu egin diren mentalitate, kultura zein ideologiaren historiari atxikitzen dutela.

Forma bisualen produkzio zein interpretazio bakoitzaren atzean gizarte eta kultura gai ezberdinen inguruko aztarnak aurkitzen ditugu. Irudiak errealitatea ulertzeke, begiratzeko eta irudikatzeke modua islatzen duten giza produktuak diren heinean, hauek sortzerakoan gure begiradaren garapenean eragina duen gizartea eta kultura islatzen da: indarrean dauden estereotipoak, rolen banaketa, generoaren ideiak, edertasun kanona, sinesmenak...

Gauza bera gertatzen da hauek interpretatzen ditugunean. Norberaren kulturaren arabera, forma bisual horiek irudikatzen duten errealitatea modu batean edo bestean interpretatua izango da. Hau da, norberaren identitatean eragina duten faktore soziokulturalen arabera, errealitate bera modu desberdinean irudikatu dezakegun bezala, irudikapen bera modu desberdinean interpretatua izan daiteke. Modu honetan artea bi noranzkoko diziplina bezala ulertu dezakegu.

Errealitate hau ikasleekin landuz gero, ikasleek ulertu dezakete artea "polita" edo "ez polita" (edertasunaren ideia kulturaren arabera ere dena) baino askoz gehiago dela. Forma bisualen barruan integratuak dauden esanahi sozialak, giza asmo edota helburu desberdinetarako erabili daitezke. Modu horretan, irudiak kritikatzeko, defendatzeko, barruan duguna adierazteko, gauza edo ideia bati buruzko dugun ikuspegia adierazteko, nahiz produktu edota zerbitzu bat saltzeko tresna ere izan daiteke.

### *1.3.3. Kognizio interaktiboa*

Mendebaldeko filosofia lau adar ezberdinetan banatzen da: metafisika<sup>7</sup>, epistemologia<sup>8</sup>, etika<sup>9</sup> eta estetika<sup>10</sup>. Modu horretan, filosofia honek ezagutza eta sentimenduak bereizita aztertzen ditu. Bereizketa historiko honek kognizioaren garapenerako emozioek hartzen duten paperaren garrantzia balioetsi ez ezik, arteak hezkuntzan duen paperaren inguruko gogoeta eza ere eragin du. Hala ere, gaur egungo kognitibistek, arte berarekin batera sortu zen eta artea hezkuntza esparruaren barruan kokatzen duen ideietako bat jarri dute indarrean berriz ere, arteak ezagutza sortzen duelako ideia hain zuzen ere.

Zenbait kognitibistek, arte bisuala norberaren ezagutzaren garapenarekin lotzen dute. Irudimenaren bidezko identifikazioaren bitartez, pertsona jakin bat egoera jakin batean izateko aukera ematen digu. Honen bitartez, egoera jakin horretan

---

<sup>7</sup>Errealitatearen eta izatearen funtsa aztertzen duen zientzia.

<sup>8</sup>Ezagutzaren jatorria, balioetasuna eta mugak aztertzen dituen zientzia.

<sup>9</sup>Epaiketaren natura eta moralak aztertzen duen zientzia.

<sup>10</sup>Edertasunaren natura aktibitate artistikoetan aztertzen duen zientzia.

---

guk izango genituzkeen erreakzioak, sentimenduak edota nahiak ezagutzeko aukera daukagu.

Modu berean, egoera edota erabaki jakin batzuen ondorioz sortu ahal diren edo ziren fikziozko munduetan esperimentatzeko eta aztertzeako aukera eskaini ez ezik, arte bisualak pertsona baten omnipresentzia posiblea egiten du. Izan ere, honek gertaera berdina ikuspuntu desberdinetatik ikusteko aukera ematen du.

Zinematografian, ideia hauek aztertu dira obra anitzen bitartez, horietako bat *El azar* (Kieslowski, 1981) da. Pelikula honetan, protagonistak aukeratzen duen ibilbidearen arabera, errealitatea ikuspuntu desberdinak ezagutzeko aukera dugu: Witek-ek, pelikularen protagonistak, hiru aukera desberdin ditu. Segun eta zein aukeratzen duen bere bizitza modu batekoa edo bestekoa izango da, eta errealitatean gertatzen ez den bezala, aukera bakoitzaren arabera errealitatea nola izango den ikusteko aukera eskaintzen digu pelikula honek.

Errealitatea ikuspuntu omnipresentzial batetik, hau da, gertaera berdina ikuspuntu desberdinetatik ikusteko aukera *Babel* (González, 2006) pelikulak eskaintzen digu: bala berberaren inpaktuak beraien artean ezagutzen ez diren bi haur marokoarren, Estatu Batuetako haur batzuk zaintzen dituen emakume mexikar baten eta gazte japoniar baten bizitzetan duen eragina islatzen du.

Aukera hauen bitartez, errealitatea ikuspuntu desberdinetatik aztertu dezakegu, bai eta aukera bakoitzean gure erreakzioak, sentimenduak eta inpultsoak ezagutzeko posibilitatea ere, modu horretan gure burua ezagutzuz. ikuspuntu honetatik, Arte bisualen ikaskuntza prozesua , auto-aurkikuntzako prozesua bezala ulertzen da.

Ikuspuntu horretan oinarrituta, zenbait kognitibistek, artea hezkuntza emozionalarekin ere lotzen dute. Izan ere, sentitzen dugun hori irudikatzeak edota transmititzeak, norberaren irudimen-gaitasunen bitartez jatorrizko esperientzia edo egoera emozional hori aztertzea eta ulertzea eskatzen du. Prozesu hori emozio bera artikulatzera eramaten gaitu, norberaren ezagutza eraikiz.

Forma, sentimendu eta ezagutzen arteko harremanak paper garrantzitsua jokutzen du prozesu kognitiboaren garapenean. Errealitate hau ikusminak formaren pertzepzio eta interpretaziotarako duen eraginean islatzen da, "la

expectación es un estado emocional ligado al conocimiento de la forma, como por ejemplo cuando no reconocemos a alguien que conocemos bien, solo porque está en otro contexto" (Freedman, 2002).

Aipatzekoa da ikasketa prozesua, konexio kognitiboen ondorioz gertatzen dela, konexio emozionalak barne. Geroz eta konexio gehiago egoteak, geroz eta ikasketa gehiago garatzea suposatzen du. Berez, ikerketa kognitibo berriaren arabera, objektuen eta pertsonen arteko harremanak (harreman emozionala) ikasteko duen garrantzia geroz eta agerikoagoa da (Freedman, 2002).

Ikuspuntu honetatik, garapen kognitiboa ez da norabide bakarreko prozesu bat bezala ulertzen, norabide anitzekoa baizik. Perspektiba honek kultura bisualaren lanketa, ezagutza mota ezberdinen bitartez gauzatzea suposatzen du.

Modu horretan, kultura bisualaren ikasketak, forma bisualen interpretazioa ez ezik, forma bisual hauen testuinguru sozialen, historikoen eta kulturalen azterketa eskatzen du. Gainera, objektu bisual hauek faktore desberdinen emaitza direla kontuan hartuz (ekonomikoak, politikoak, kulturalak, instituzionalak, teknologikoak, pertsonalak, emozionalak...), hauetatik jaso dezakegun informazioa oso anitza eta zabala izan daiteke. Errealitate honek kultura bisuala diziplina arteko ikasketa eremu batetik garatzea eskatzen du. (Hernández, 2002)

#### *1.3.4. Formaren testuinguraketa*

Testuingurua, egoera komunikatibo bat inguratzen duen ezaugarri eta egoera multzoa da. Forma, funtzioa, esanahi sinbolikoak eta norberaren identitatea artearen parte diren bezala, testuingurua ere artearen parte integratzailea da: soilik testuingurua kontuan hartzen badugu ulertuko dugu forma bere osotasunean. Modu berean testuingurua formaren bitartez perfilatua dago (Freedman, 2002).

Testuingurua artearen lan fisiko baten narrazio bezala ulertzen denean soilik, artea gizakiaren existentziaren isla bezala ulertu dezakegu. Kultura bisualaren ikasketarako forma bisualen testuinguraketa ezinbestekoa da, kultura bisualak irudiek testuinguruarekin duten harremana kontuan hartuz transmititzen edota



---

komunikatzen dituzten esanahi sozialak zein kulturalak aztertzen dituen heinean.

Formak ezinbesteko papera dauka arte bisualetan. Hala ere, Kerry Freedman-aren arabera, formaren berehalakotasuna, sedukzioa, dimentsioak, mugimendua zein gelditasuna artea boteretsua bilakatzen duen arren, artearen boterea ezin zaio soilik formari mugatu: "El formalismo es reductor, seudocientífico, y referido de manera primaria a las características físicas y perceptuales de los objetos artísticos. Conceptualizar la estética como algo meramente formalista no hace justicia la complejidad de las artes visuales" (Freedman, 2002).

Modu horretan, objektu bisual baten azterketak, analisi formalistak gainditzea eta forma bisualaren ezaugarri interaktiboak kontuan hartzea eskatzen du. Hau da, aspektu bisualen azterketa ez ezik, objektu bisualen esanahiak, hauen testuinguru historiko kulturalaren (garaiko bizimodua, ohiturak, indarrean dauden ideologiak, baloreak, estereotipoak... ) kontuan hartuz, ikertzen duen azterketa gauzatzea eskatzen du.

Ondorioz, gaur egun oharkabetasunean pasatuko liratekeen obra batzuk, bere garaian iraultzaileak izan ziren, momentuan indarrean eta egokitzat hartzen ziren balore soziokulturalekin apurtzen zutelako. Horren adibidea Francisco de Goya-ren "La Maja desnuda" obra daukagu<sup>11</sup>:

---

<sup>11</sup> Francisco de Goya margolari espainiarraren " La Maja Desnuda" obrak 1803eko gizarte espainiarra hunkitu zuen. Obra honetan, margolariak sofa baten gainean etzanda emakume biluzi bat irudikatu zuen. Emakume horrek konplexurik gabeko espresioarekin ikuslea zuzenean begiratzen zuen, begirada desbideratu gabe, garaian ohikoa ez zena. Espresio eta begirada horiek garaiko publikoa intentsu zuten. Espainiako inkisizioak Goya interrogatu zuen, baina azkenean zigorrik gabe ateratzea lortu zuen.



**Irudia 2.** La Maja Desnuda - Francisco de Goya

Modu berean, sortu ziren garaiko ideia eta baloreekin bat egiten zutelako oharkabetasunean pasatu ziren zenbait forma bisualak, gaur egun harrigarriak nahiz liraingarriak izan daitezke . Horren adibidea hurrengo iragarkiak daukagu:



**Irudia 3.** Chase & Sanborn coffee- ren iragarkia

---

Aipatzekoa da ere, objektu bisual baten analisi interaktiboa ez dela soilik subjektuaren kanpo kokatzen dugun testuinguruaren azterketara mugatzen. Objektu bisual horren testuinguru soziokulturala aztertu ondoren, neurri batean testuinguru horren ondorioz forma bisualaren autorearen barne testuingurua ere kontuan hartu behar da: gizabanakoaren esperientziak, egoera emozionala, jarrera, interesa, nahiak, intentzioak, beharrak, beldurrak... autorearen identitatea azken finean.

Modu berean azpimarratu behar da, objektu bisual bat sortu duen pertsonaren izaerak objektu bisual beraren produkzioan eragina izan ez ezik, objektu bisual hori kontsumitzen duen pertsonaren izaerak objektu horren interpretazioan ere eragina duela. Azken finean irudiek ez dute forma edota esanahi bakarra, norberaren begiradan hauek transformatu egiten dira eta.

#### **1.4. Curriculumaren berrantolaketa**

Kultura bisuala eta Hezkuntza Sistemaren arteko hurbilketak Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntua aldatzea eskatzen duen bezala, ikuspuntu berri horrek oinarritutako egungo *curriculumaren*<sup>12</sup> berrantolaketa ere eskatzen du.

Berrantolaketa honen helburua, ikasleak mundu sozial zein lan mundura egokitzea lagunduko duten kulturalki ezarri diren ezagutza edo baloreak irakastea baino, errealitatearen errepresentazio ezberdinen eta hauen interpretazioaren bitartez norberaren identitatea eraikitzea da. Helburu honek ikasleen identitateak zein horietan eragina duten testuinguru soziokulturalak kontuan hartzea eskatzen duen heinean, ezin da curriculum berrantolatzeko modu bat bakarrik proposatu.

Ikasleak, ez dituzte soilik bere garapen kognitiboan eragiten duten eta klasean landuko diren ezagutzen ulermenean islatzen diren esperientziak. Ikasleak, balore zehatz batzuen garapenean eragiten duten ingurune soziokultural eta garai historiko jakin batzuen emaitza dira. Modu horretan, ikasleak genero, etnia eta klase sozialen arabera bizitutako esperientzia jakin batzuen ondorioz garatutako munduaren irudi zein identitate batekin iristen dira jadanik eskolara.

---

<sup>12</sup> Abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuak Espainiar Estatuko Lehen Hezkuntzarako ezarritakoa eta, martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako ezarri zena.

Modu horretan, eta Fernando Hernández-ek (1999) parafrazeatuz "la organización del conocimiento no puede admitir reglas universales, y las posibilidades de ordenación de los contenidos no se puede hacer de manera única". Irakasle bakoitzak, duen ikasle taldearen behar, esperientzien, zailtasunen, ezagutzen, zein hauekin lortu nahi diren helburuen arabera, *curriculum*a modu batean edo bestean antolatua izango da.

*Curriculum*a berrantolatzeko modu honen izaera ez-deterministak, praktikan jartzen den edozein antolaketa, ikasleek gela barruan zein kanpoan bizitzen dituzten esperientzien arabera eraldatua izatea eskatzen du.

Modu horretan, gizartean gertatzen diren aldaketak *curriculum*aren antolaketan kontuan hartzea ezinbestekoa da, zer eta nola irakasten den eragiten duten aldaketa sozialak hain zuzen ere. Fernando Hernández-ek (1999)-ek Giddens-ek<sup>13</sup> egindako garai postmodernoan eragiten duten zenbait aldaketen analisia azpimarratzen du. Aldaketa horiek gizarte garaikidearen hurrengo aspektuekin harremanatuak daude eta hortaz, Hezkuntza Sistemak ondorengo hauek kontuan hartzea ezinbestekoa da:

1. Geroz eta globalagoa den informazio eta ezagutza iturrien zabalkuntza.
2. Munduan gertatzen ari diren aldaketa hauek ulertzeko moduak, (espazio eta denborazko teknologien ulermenaren ondorioz), gure ezagutzaren iraunkortasun eta egonkortasunerako mehatxu bat izatea, ezagutza hauskorra eta behinekoan bilakatuz.
3. Migrazioaren eta bidaiatzeko erraztasunen ondorioz, pertsona, sinesmen, eta kulturen arteko harremanaren hazkundera.
4. Komunikazioaren bizkortasunaren eta ezagutzaren garapen eta orientazio aldaketa etengabeen ondorioz, ikerketa eta garapenaren arteko harreman interaktibo indartsua.

Kultura bisualaren ikasketak kausa eta ondorio guzti hauek kontuan hartzea eskatzen du, arazo, espazio eta denbora arteko loturak eginez. Honek, orain arte indarrean zegoen ikuspegi etnozentrikoa eta norabide bakarrekoa

---

<sup>13</sup> Giddens, A. (1995): *Modernidad e identidad del yo*. Ed.62 (1991). Barcelona. Hargreaves, A. (1996): *Profesorado, cultura y postmodernidad. Cambian los tiempos, cambia el profesorado*. Morata. Madrid -en zitatua.

---

gainditzea eta kultura bisualaren lanketa irakasgai desberdinen eta hauen ikuspegi desberdinen lanketa eskatzen du<sup>14</sup> (Hérendez, 1999)

Modu horretan, Fernando Hernández-ek (1999) ikuspuntu pluralistaren erabilpena proposatzen du kultura bisualaren ikasketarako, errealitate bera perspektiba desberdinetatik aztertzean datzan ikuspegia hain zuzen ere. Modu horretan forma bisualak estilo, kultura, teoria bai eta artearen kanon ezberdinetatik aztertuak izango dira. Ikuspuntu hau praktikara eramateko, Hernández-ek (1999) Cross-ren<sup>15</sup> estrategia azpimarratzen du:

1. Errepresentazio, esanahien eta kulturen arteko harremanen naturari buruzko ideiak argitzen dira.
2. Elkarrizketa interaktiboaren eta kontrajarrian dauden iturrien erabilpenaren bitartez, ikerketarekiko aurkariak diren ikuspuntuak aztertzen dira.
3. Kultura bisualarekin harremanetan dagoen gai jakin baten analisia egiteko erabiliko dugun edo ditugun ikuspuntua edo ikuspuntu konbinaketa aukeratzen da.

Ikuspuntu pluralistaren erabilpenak, errepresentazio bisualak teoria sozial eta kultural desberdinen bitartez aztertuak izatea ahalbidetzen duen diziplina arteko ikasketa eremu bat exijitzen du. Modu horretan, filosofiaren, estetikaren, ikonologiaren, antropologiaren, kulturaren eta historiaren, psikologiaren eta moralen inguruko teorien lanketa, beste batzuen artean, beharrezkoak dira kultura bisualaren ikasketarako.

Ikuspuntu honen bitartez, irudiaren kontzeptua zabaltzen da. Irudiak ez dira guk perzibitzen dugun formara mugatzen, irudi bat errealitatea ulertzeko, begiratzeko eta irudikatze modua islatzen duten giza produktuak dira, bai eta ondorioz, garai jakin bateko gizartearen irudikapenaren isla ere. Errealitate honek irudiaren analisi formalistak gainditzea eta testuinguru kulturalak aztertuta, forma bisual horren esanahia ere aztertzen duen analisi berri bat

---

<sup>14</sup> Hargreaves, A. (1996): Profesorado, cultura y postmodernidad. Cambian los tiempos, cambia el profesorado. Morata.

<sup>15</sup> Cross, J. (1995): Picturebooks and Christopher Columbus. A cultural analysis. Columbus. The Ohio State University. Tesi doktrala ez argitaratua.

eskatzen du. Honen bitartez, itxura gainditzen da; gauzak direnari, diruditenari baino garrantzia gehiago ematen zaio.

Analisi hau praktikara eramateko, ikasleekin forma bisual baten azterketa gauzatzen ari gainean Fernando Hernández-ek (1999)-ek ikasleekin lantzea gomendatzen dituen hurrengo galderak erabili ditzakegu:

- Zer nolako harremanak ezarri daitezke manifestazio eta hauen esanahien eta erlazionatuak dauden kulturen artean?
- Errepresentazio desberdinek (haurrentzako liburuetan, web guneetan, zein, obra artistikoak bezala ezagunak direnak) nola eragiten dute esanahi kulturaletan?
- Nola sortu ditzakegu produkzio kulturalen analisi kritikoaren isla diren errepresentazio forma alternatiboak?

Aspektu hauek lantzeko Fernando Heránandez-ek (1999)-ek Barret<sup>16</sup> (Barret, 1990) argazkilaritza lantzeko proposatzen dituen estrategiak azpimarratzen ditu:

1. Deskribatzaileak: zer ikusten dugu, zer irudikatzen da eta zer nahi dugu irudikatu.
2. Analitikoak: ze elementu edo osagaiek konfiguratzen dute errepresentazio prozesua.
3. Interpretaziozkoak: kultura bisualarekin lotuta dauden diziplina edota irudiekin erlazionatutako esanahien produkzioan oinarrituta.
4. Kritikoak: norberaren zein besteen produkzioen balorazioak gauzatzeko eraikitako argumentu eta formulazio ezberdinetan oinarrituta, arazo berriak formulatzeko, irudikatzeko eta interpretatzeko helburua dauka estrategia honek. Estrategia hau konplexuagoa bilakatu daiteke hurrengoa ere landuz (Hé Hernández, 1999):
  - a. irudietan mediatzen duten ikuskera ezberdinak
  - b. ikuskera hauek ezartzen eta baztertzen saiatzen diren munduaren bertsio ezberdinak

---

<sup>16</sup> Barret. T (1990): criticizing photographs. An introduction to understanding images. Mountain View, Cal.: Mayfield

- 
- c. guzti honek nola eragiten gaituen gure bizitzan eta ingurunekoenetan.

Momentura arte garatutakoa kontuan hartuz, *curriculumak* kultura bisualaren ulermenerako irudiak lau errepresentazio sozialen bitartez lantzea proposatzen du Fernando Henández-ek (1999):

- diziplina arteko ikasketa eremu baten bitartez
- ikasleen ezaugarri ebolutibo, sozial eta kulturalean oinarrituz.
- kultura arteko konexioak sortuz
- posizio sozio kultural batetik

Modu berean, ezaugarri hauek atxikitzen dizkio kultura bisuala lantzeko egokiak diren irudiei:

1. Irudi asaldagarriak izatea
2. Kultura desberdinekin konpartituak dauden baloreekin harremanatuak egotea
3. Komunitatearen ahotsak islatzea
4. Interpretazio anitzekoak izatea
5. Jendearen bizitzarekin lotuak egotea
6. Balore estetikoak islatzea
7. Pentsarazten dutenak
8. Hermetikoak ez izatea
9. Artistaren nartzisismoaren espresioa soilik ez izatea
10. Etorkizunera begiratzen dutenak
11. Berritasun ideiarekin obsesionaturik ez egotea.

Ebaluazioari dagokionez, ikasleek berenganatzen saiatzen ari diren gaitasun eta eduki desberdinetara zuzendua egon behar da, hala ere konpartimendu instituzionaletik kanpo geratzen diren ikasleen intentzioak ere kontuan hartu behar ditu (Freedman, 2002).

Azpimarratzekoa da ere, elkarrizketak ezinbesteko osagaia direla kultura bisualaren ikasketarako, elkarrizketak norberaren pentsamenduaren, barne errealitatearen eta kanpo errealitatearen arteko bitartekaria den heinean.

Aurkezten den planteamendu honen bitartez, inguruneko errealitatearekin kritikoak diren pertsonak heziko dira. Bere ingurunean aurkitzen dituzten irudiak

ideologia eta balore desberdinen transmisoreak diren heinean, hauek bere identitatean eragiten dutela kontziente izango dira. Modu horretan, ikasleak konturatuko dira, errealitatean ez garela gure izaera aukeratzeko aske, guztiz baldintzatzen gaituen gizarte baten emaitza baizik. Bai eta errealitate horrekin apurtzeko modu bakarra errealitate bera zalantzan jartzea dela.



---

## 2. MATERIALAK ETA METODOAK

### 2.1 Proposamena

Momentura arte garatutako egungo gizarte bisualaren beharrari erantzun bat emateko, Gora Gutenberg! Proiektuaren (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) egokitzapena egin da. Proiektu berri horren bitartez Hezkuntza Artistikoaren ikaskuntza kultura bisualaren ikaskuntzara zabaltzen da, modu horretan, kultura bisuala hezkuntza esparruan integratuz.

Jatorrizko proiektu honen gai nagusia komunikabideak dira. Diziplina arteko proiektu bat den heinean, gai honen bitartez Hezkuntzen tratamendu integratua (euskara eta ingelesa), Natura, Gizarte eta Kultur ingurunea eta Hezkuntza Artistikoa lantzen dira.

Aipatzekoa da, jatorrizko proiektuak Hezkuntza Artistikoaren lanketarako, arte bisualen zein arte musikalera zuzendutako jarduerak proposatzen dituela (arte bisualak lantzeko proposatzen diren jarduerak ezagutzeko, ikusi eranskinak 1) . Gauzatutako egokitzapena, arte bisualen lanketarekin erlazionatuak dauden ariketak eta jarduerak zentratua izan da.

Modu horretan, jarduera batzuk eraldatuak edota kenduta izateaz gain, jarduera berri batzuk txertatua izan dira ere. Horretarako, Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berria definitzen duten ondorengo hiru ezaugarrietan oinarrituta izan gara:

- Hezkuntza artistikoa errepresentazio kulturalen ulermenaren bide bezala ulertzen duena.
- Ikasleen identitatea kontuan hartu ez ezik, forma bisualen lanketaren bitartez hauek definitzen dituena.
- Diziplinarteko izarako ikasketa eremua erabiltzen dituena.

Hortaz, egokitzapen honen helburu nagusia, ikasleak kultura bisualaren ikaskuntza prozesuan murgiltzea da. Horretarako proiektu berri honen bitartez ondorengo helburu didaktiko hauek lortu nahi izan dira:

1. *HD*: Ikasleak forma bisualak informazio desberdinak transmititzeko bide bezala ulertzea.

2. *HD*: Forma bisualek eskaintzen diguten informazioa, perspektiba, testuinguru zein norberaren izaeraren arabera modu desberdinean interpretatua izan daitekeelako ideia garatzea.
3. *HD*: Ikasleek forma bisualak mundua ikusteko moduen eta errepresentazio kulturalen bide bezala ulertzea.
4. *HD*: Ikasleek iragarkien ezaugarriak, hartzen duten espazio handia, helburuak eta azken hauek lortzeko erabiltzen dituzten estrategia desberdinak ezagutzea, bai eta horiek norbanakoaren helburuetarako erabiltzen jakitea.
5. *HD*: Ikasleek jarrera kritikoa sustatzea forma bisual baten aurrean, formak eskaintzen digun itxura gaindituz.

Idea hauek garatzeko ondorengo edukiak landuko dira:

- komunikazio mota desberdinak
- komunikabideak:
  - informazioaren manipulazioa
  - komunikabideek hartzen duten espazioa zabala
  - publizitatea

Proiektu honen Hezkuntza Artistikoari dagozkion jardueren bitartez ondorengo oinarritzko kompetentzia hauek lantzen dira (ikus eranskinak 2):

- 1K: Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
- 3K: Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna
- 4K: Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
- 5K: Gaitasun soziala eta herritartasuna
- 6K: Arte eta kultur gaitasuna
- 7K: Ikasten ikasteko gaitasuna
- 8K: Autonomia eta ekimen pertsonala

---

Egokitzapena egin ondoren sortutako proiektua, Nafarroan aurkitzen dugun Antsoaingo "Ezkaba" ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin aurrera eraman zen. Proiektua 2014ko apirilaren 17an hasi eta maiatzaren 9an amaitu zen.

### *2.1.1. Metodologia*

Aurretik aipatu den moduan, proiektu hau Ezkaba ikastetxe publikoko (Antsoain, Nafarroa) Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleekin aurrera eraman zen. Aipatzekoa da, ikasle hauen testuingurua, motibazioak, interesak, beharrak, gaitasunak, ekarpenak, zein hauen identitatea kontuan hartu izan zirela proiektuaren garapen osoan zehar. Modu horretan, proiektuak proposatzen dituen helburu didaktikoak lortzeko diseinatutako jarduera guztiak hauen arabera izan ziren.

Proiektu honen abiapuntua haur bakoitzaren aurrezagutzak eta aurreiritziak izan ziren, haurrek jadanik eskuratuak zituzten ezagutzak hain zuzen ere. Modu horretan, Hezkuntza Artistikoaren ikaskuntza prozesuari zegokion proiektuaren atalari sarrera emateko, ikasleen aurrezagutzak ezagutzeko aukera eskaintzen zuen ariketa bat proposatu zen. Behin horiek ezagututa, ezagutza horiek eremu edota dimentsio berrietara zabalduko zituzten jarduerak diseinatu ziren.

Proiektu honek errealitatea ikuspuntu pluralista batetik aztertzea proposatzen du, errealitate bera perspektiba desberdinetatik aztertzean datzan ikuspegia hain zuzen ere. Modu horretan, proiektu honek forma bisual bera, ikuspuntu, testuinguru zein, bakoitzaren esperientzien arabera esanahi desberdinak dituela ezagutzeko aukera ematen du. Horren bitartez, ikasleek perzibitzen duten hori zalantzan jartzen ikasiko dute, ikasleen pentsamendu zein jarrera kritikoa sustatuz. Ondorioz, ikasleek bere ikuspuntu propioa eraikitzeo aukera izango dute, bere errealitate propioa eraikitzeo eta haien identitateak definitzeo aukera hain zuzen ere.

Errealitatea eta ezagutza indibiduala izan arren, ezagutza taldean eraikitzen da. Hori dela eta, proiektu honek proposatzen dituen jarduera gehienak ez dira indibidualak, taldekoak baizik. Hauen bitartez, ikasleen arteko harremanak eta parte hartzea sustatzen dira. Ikasleek bere burua egoera desberdinen aurrean

ezagutzeko aukera dute, pertsona bakoitza errealitate bat duela ikusi ez ezik, horiek errespetatzen ere ikasiz.

Proiektu honetan interesposizioak proposatzen dituzten ariketa aunitz aurkitzen ditugu ere. Hauen bitartez, ikasleei forma bisual ezberdinak aurkezten zaizkie, horiek azterketa egiteko. Gauzatutako azterketa horiek ez ziren aspektu bisualen ikerketara soilik mugatzen, forma bisual horien testuingurua kontuan hartuz, esanahiak ere aztertuak izan ziren. Modu horretan irudiak errepresentazio kulturalak bezala ulertuz.

Ariketa hauetan islatzen zen bezala, elkarrizketek ezinbesteko papera jokatzen dute. Hauek norberaren pentsamenduaren, barne errealitatearen eta kanpo errealitatearen arteko bitartekariak diren heinean, horien bitartez ikasleen interesa eta motibazioak ezagutu ez ezik, ezagutzak eraikitzeke ere erabili genituen. Elkarrizketan oinarritutako hausnarketa eta eztabaidaren bitartez, ikasleek ondorio eta ezagutza berriak eraiki zituzten.

Proiektu honek ezagutzaren berenganatzea elkarrizketen bitartez garatu ez ezik, esperimentazioaren bitartez ere lortzen zen. Hortaz, baliabide eta espazio desberdinetan esperimentatzeko aukera eskaini genien ikasleei.

Aipatzekoa da ere, proiektuaren garapenean zehar irakasleak hartu beharreko papera. Irakasleak jarrera aktiboa izan behar du, egunerokotasunean sortzen diren egoera desberdinen aurrean erreakzionatzeko eta erantzun egokia emateko gai izan behar da. Ez da *curriculumaren* transmisorea soilik. Modu berean, ezagutza gidatu eta erraztatu behar du, beti ere ikasleen izaera zein testuingurua kontuan hartuz eta haien gaitasunetan konfiantza izaten.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dut proiektuan zehar ikasleek zer, noiz eta nola landu nahi zuten inguruko erabakiak hartzeko aukera izan zutela. Modu horretan, ikasleak ikaskuntza prozesuaren parte izan ez ezik, protagonistak ere izan ziren.

## **2.2. Jarduerak**

Atal honetan proiektuan zehar Hezkuntza Artistikoaren lanketarako aurrera eramán ziren jarduerak deskribatu ez ezik, ikasleek ariketa hauek egitean izan zituzten erantzunak zein erreakzioak ere azaltzen dira.

---

Bi jarduera mota aurkitzen ditugu. Batetik, Gora Gutemberg! (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) proiektuak proposatzen zituen ariketa batzuen egokitzapenak eta bestetik asmatutakoak. Hala ere, ezinbestekoa da aipatzea bai egindako egokitzapenak eta bai jatorrizko proiektuan txertatutako ariketa guztiak klasean sortzen ziren egoeren zein ikasleen interes eta ekarpen arabera diseinatuak izan zirela.

### **1. Jarduera: Komunikabideen kutxa**

Jarduera hau proposatu zenean, proiektua jadanik hasita zegoen, aurreko egunean ikasleek "komunikazio" kontzeptuaren definizioan landuz hasiera eman zioten proiektuari. Horretan oinarrituz, ikasleekin ondorengo jarduera egin zen:

Ikasleak korroan eseri ziren eta kolore biziko kutxa handi bat erakutsi zitzairen eta horretatik objektu desberdinak banan-banan ateratzen joan nintzen.

1. Egunkari bat
2. Mugikor bat
3. Irrati bat
4. Musika disko bat
5. Bi irudi
6. Pegatina bat

Ikasleek, aurreko egunean egindako jarduera batean eraikitako "komunikazioaren" definizioa kontuan hartuz, kutxatik ateratzen nituen objektu horiek komunikatzen zuten edo ez erabaki behar zuten.

Ariketa honen helburua, ikasleen kultura bisualaren edota Hezkuntza Artistikoaren inguruan zituzten aurrezagutzak identifikatzea zen.

Kontuan izan behar da kutxatik ateratako objektu batzuk irudiak zirela eta hortaz, ikasleek irudiak komunikatzeko bide bezala ulertzen zituzten edo ez ezagutu nahi izan zen. Modu berean, forma bisual bera ikuspuntu zein testuinguru desberdinetatik ikusteko aukera ere eman genien. Horren aurrean ikasleek zituzten erreakzioen bitartez haien aurrezagutzak zein motibazioak ezagutu nahi ziren.

- Hauek izan ziren ikasleek izan zituzten erreakzioak:

*Ikasleek kutxa ikusi eta berehala "zer dago hor barruan?", "Zergatik ekarri duzu hori?" bezalako galderak egiten hasi ziren urduri. Bere aurpegiek jakin-mina islatzen zuten.*

1. Ikasleen erreakzioa kutxatik egunkaria ateratzerakoan:

*Egunkaria kutxatik atera nuenean, ikasleek ez zuten zalantzarik izan eta guztiek komunikatzeko erabiltzen zela esan zuten.*

*- Zer komunikatzen digu?- galdetu nien ikasleei*

*Galderaren aurrean ikasleek egunkari batean aurkitzen al ditugun atalak deskribatu zituzten " berriak", "kirolak", eguraldia"... ikasleek gehien errepikatu zuten atala "kirolak" izan ziren.*

2. Ikasleen erreakzioa mugikor bat ateratzerakoan:

*Mugikorra kutxatik atera eta berehala galdezka hasi ziren urduri:*

*-Benetakoa da?*

*- Piztuta dago?*

*- "WhatsApp-a<sup>17</sup>" dauka? Eta "Pou<sup>18</sup>"?*

*Bat-batean ikasle batek zutik jarri zen eta armairura joan zen, bere berokiko poltsikotik mugikor bat atera zuen. Ikasleak azaldu zuen, bere amak operatu egin ziola, baina soilik jolasteko, beti itzalita zegoela.*

*Ikasleei mugikorrek komunikatzeko erabiltzen diren edo ez galdetu genienean, guztiek baietz esan zuten. Ikasle batzuk mugikorrek komunikatzeko eskaintzen dituzten aplikazio desberdinak eta horien funtzionamendua ere azaltzen hasi ziren:*

*- Lehendabizi eman behar dizute pertsona horren zenbakia, gero agendan gordetzen duzu eta gero deitzen diozu.*

---

<sup>17</sup>WhatsApp-a mezuak bidaltzea edota jasotzea ahalbidetzen duen aplikazioa da. Aplikazio honek erabiltzaileak elkarren artean ahozko zein idatzizko mezuak bidaltzeko aukera eskaini ez ezik, bideo eta irudiak bidaltzeko aukera ere ematen du.

<sup>18</sup>Pou maskota birtual bat zaintzean datzan aplikazio bat da. Japonian asmatu zen 1996-ean.

---

- Bai, baina baita ere bidali al diozu "whatssapp" bat, eta jarri behar duzu argazki bat besteak ikusteko. Nire amak nirea eta nire anaiarena dauka.

- Eta nireak- esan zuten besteek.

- Niri Pou gustatzen zait- gehitu zuen beste batek

### 3. Ikasleen erreakzioa kutxatik irratik ateratzerakoan:

*Irratia ateratzean, nahiz eta ikasle guztiek komunikabide bat zela esan, zalantza gehiago izan zituzten bere erantzuna justifikatzeko, bai eta programa desberdinen adibideak aipatzeko. Ikasle gehienek bere gurasoek entzuten zutelako bakarrik ezagutzen zutela esaten zuten:*

- Goizetan kotxean eskolara etortzen naizenean entzuten dut nire aitak beti jartzen du eta!

- Nire aitak beti eramaten du bat eta kaskoak jartzen ditu.

- Nik nire amarekin entzuten dut, baina musika soilik, eta gustatzen zait esaten dutenean: "cien, cien, cadena cien"<sup>19</sup> - ikasleak "slogan-a" abesten hasi zenean, klaseko beste ikasle guztiek berarekin batera abesten hasi ziren ere.

- Ez dakit zergatik ezagutzen dudan abesti hau- esan zuen ikasle horietako bate harrিতuta.

### 4. Ikasleen erreakzioa kutxatik musika disko bat ateratzean:

*Musikak komunikatzen duen edo ez galdetzerakoan, ikasleek zalantza asko izan zituzten; ikasle gehienak isilik geratu ziren, eta erantzun zutenen ikasleen artean erantzun baiezkoak eta ezezkoak zeuden. Bat-batean, ikasle baten azalpenak ikasle guztien zalantzak argitu zituen:*

-Noski musikak komunikatzen duela! zuk kanta bat entzuten duzunean badakizu abesten ari duena triste edo pozik dagoen!

-Bai, bere sentimenduak azaltzen ditu- lagundu zion beste batek

- Nola dakizue noiz hasi eta bukatzen da jostaldia?- galdetu nuen

- Musikarengatik!- erantzun zuten ikasle guztiek batera

---

<sup>19</sup>"Cadena 100"izeneko irratik emisorak erabiltzen duen slogan musikala.

*Ikasleek bere artean hitz egiten hasi ziren, beraien artean musikak zergatik komunikatzen zuen azalduz.*

*e. Ondorengo objektuak erakutsi baino lehen, ikasleei gorputzak komunikatzen al zuen galdetu genien. Berriz ere zalantzak sortu ziren ikasleen artean, baina berehala ikasle batek ondorengo erantzun zuen:*

*- Bai, adibidez gormutuek eskuak erabiltzen dituzte komunikatzeko- ikasle guztiek arrazoia eman zioten.*

*- Zer komunikatzen dizuet hau egiten badut?- galdetu nien ikasleei keinu desberdinak egiten nituen bitartean (gauzak seinatu, aurpegiarekin keinu ezberdinak jarri...- eta orain?*

*- Beldurtuta zaudela*

*- Gauzak bildu behar ditugula*

*- pozik zaudela*

*-...*

*f. Irudiak*

*Irudiek komunikatzen al zuten galdetu nienean zalantzak sortu ziren ikasleen artean. Momentu horretan irudi bat atera nuen kutxatik. Irudiak ikusi eta berehala ikasle guztiek baietz esaten hasi ziren.*

*- Zer ikusten duzue irudi honetan?*



**Irudia 4.** Ikasleei erakutsitako irudia. Isiltasuna eskatzen duen seinale bat.



---

*Ikasleek nire galdera erantzun beharrean, zuzenean irudi horrek komunikatzen zitzaiona adierazi zuten:*

- *Isilik egoteko - denak modu berean interpretatu zuten irudia*
- *Eta irudi honetan? zer ikusten duzue?- galdetu nuen kutxatik beste irudi bat ateratzen nuen bitartean*



#### **Irudia 5.** Trafiko seinale baten irudia

*Ikasleek, berriz ere, nire galderari erantzun beharrean, zuzenean irudia komunikatzen zitzaiena azaldu zuten:*

- *Ezkerrean joateko- erantzun zuen beste batek bigarren argazkia entzutean*
- *Ziur?- galdetu nuen irudia biratzen nuen bitartean*
- *Hori tranpa da!-oihukatu zuen ikasle batek*
- *Zergatik? Bakarrik buelta eman diot irudiari- erantzun nuen*
- *Baina buelta ematen badiozu beste gauza bat komunikatzen du- esan zuen beste batek parrez*
- *Gora joatea, behera joatea, eskuinetara joatea!- oihukatzen zuten ikasleek nik irudia biratzen jarraitzen nuen bitartean*



### **Irudia 6.** Irudia 5.-eri emandako birak

- Orduan, segun eta ze perspektibatik begiratzen dugun, irudi berak esanahi desberdina izan ditzake?- galdetu nuen ondorio bat ateratzeko asmoz. Ikasle guztiek baietz erantzun zuten.

g. Pegatina berde bat<sup>20</sup>

Amaitzeko, pegatina berde bat atera nuen kutxatik. Ikasle guztiek pegatinekin komunikatzen ez zutela esan zuten, ikasle bat izan ezik:

- Bai, gure argazkiaren azpian pegatzen badugu ongi portatu garela esan nahi du- Momentu horretan ikasleak isilik geratu ziren. Pegatina bat komunikatzeko ere balio zuela ikusterakoan oso harrituak geratu ziren eta bere artean begiratzen hasi ziren.

- Baina, plantilan jartzen baduzu lana denboraren barruan bukatu egin dugula ere adierazten du- erantzuten zuen beste batek.

- Orduan, testuinguruaren arabera forma batek, kasu honetan zirkulu berde baten formak, esanahi bat edo beste izan dezake?- Galdetu nuen beste ondorio batera iristeko asmoz. Ikasleek baietz esan zuten.

<sup>20</sup> Pegatina hauek gauza desberdinetarako erabiltzen dira klasean. Alde batetik, taldean badaude zenbait ikasle arazoak izaten dituztenak gelako ariketak klasearen denboraren barruan amaitzeko. Ikasle hauek egin beharreko ariketak klasearen denboraren barruan amaitzen dutenean, pegatina berde horietako bat jartzen zaie (ikasleek plantila batzuk dituzte eta segun eta ze astearen eguna den eta ze ikasgaietako lana amaitu duten, kasila batean edo bestean jarriko dugu pegatina). Astearen amaieran plantilak etxera eramaten dituzte gurasoei erakusteko.

Beste aldetik, taldearen jarrera eta giroa atseginak direnean, talde osoaren argazki baten ondoan pegatina horietako bat ematen zaie. Hamabi pegatina lortzen dituztenean film bat ikusten daklasean sari moduan.

*Jadanik biltzen ari ginela ikasle batek (oso lotsatia den ikasle batek eta ondorioz korroan asko hitz egin ez duena) niregana hurbildu zen eta hurrengo esan zidan:*

*- Eta hamabi pegatinek pelikula ikusiko dugula esan nahi dute.*

## **2. Jarduera: Kono magikoa:**

Ikasle batek klasean zegoen kartulina bat hartu, kono bat egin eta komunikabideak lantzen ari ginen heinean, klasean bozgorailu bat bezala aurkeztu zuen. Ikasle horrek egindakoan oinarrituz, ondorengo jarduera diseinatu genuen:

Ikasleak lurrian eseri ziren korro bat osatuz eta korroaren erdian kono bat utzi genuen (ikasle horrek bozgorailu bat irudikatzeko erabilitako kono bera). Ikasleek banan banan korroaren erdira joan behar ziren eta objektu horri bizia eman, hau da, konoa erabilia gauza ezberdinak irudikatu behar zituzten; txanoa, txoriaren mokoia, mendia....adibidez.

Ariketa honen helburua ikasleek forma bera segun eta ze testuinguruan kokatzen dugun (kasu honetan irudimenaren bitartez) esanahi desberdinak izan ahal dituela kontzienteak izatea zen. Bai eta norberaren arabera forma berari esanahi desberdinak eman ahal dizkiogula.

- Ikasleek izan zituzten erreakzioak:

*Ikasleak ariketarekin hasi baino lehen hasi ziren zutik jartzen eta konoari esanahi eta erabilera desberdinak ematen: batzuk burua jartzen zuten, beste batzuk sudurra.... Hortaz, asko gustatu zitzairen guk egindako proposamena. Aipatzekoa da Ikasleek ez zituztela arazorik izan konoari esanahi desberdinak emateko. Hauek dira atera ziren lehen 24 esanahiak (ikasle bakoitzak bat proposatu behar zuen eta):*

1. Mendia
2. Txanoa
3. Pinotxoren sudurra
4. Izozkiaren kukurutxoia
5. Poltsoa

6. Txoriaren mokoa
7. Egiptoko piramidea
8. Loreontzia
9. Teilatua
10. Ezkila
11. Inbutua
12. kanpin denda
13. Teleskopioa
14. Entrenatzeko piboteak
15. Margo erraldoi baten punta
16. Zintzarria
17. Gaztainak gordetzeko poltsa
18. Lanpara bat
19. Adarrak
20. Sumendia
21. Telefonoa
22. Koilare eta pultserak egiteko aleak
23. Letaginak
24. Tximinia

*Aipatzekoa da , nahiz eta hemen lehenengo 24 esanahiak soilik aipatzen diren, ikasleek konoari esanahi gehiago eman zizkiotela.*

### **3. Jarduera: Irudiak interpretatzen**

Ikaslek korroan eseri ziren eta argazki desberdinak agertzen ziren *PowerPoint* bat erakutsi genien (argia itzaliarekin). Ikasleek irudi bakoitzak zer komunikatzen zitzaaien azaldu behar zuten.

Ariketa honen helburua ikasleek beste pertsonen erantzunak entzuterakoan errealitate bera modu desberdinean interpretatu daitekeela kontziente izatea zen, bai eta irudiak errepresentazio kultural bezala ulertzea.

- Ikasleen erreakzioak argazki bakoitzaren aurrean:
  - 1. argazkia:



**Irudia 7.** Jendetza baten irudia

*Ikasleak argazkia ikusi eta berehala hasi ziren argazkian ikusten zutena azaltzen, erantzun desberdinak aurkitu genituen:*

- *Zer ikusten duzue argazki honetan?- hasi nintzen elkarrizketa*
- *Jende asko!- erantzun zuten berehala*
- *Nik uste dut kontzertu bat dela- esan zuen ikasle batek*
- *Agian manifestazioa bat da!-gehitu zuen beste ikasle batek*

*Ikasleei irudi horrek zer komunikatzen zitzaaien galdetu baino lehen, ikasle batzuk hasi ziren argazkiak sentiarazten zitzaaien hori adierazten:*

- *A ze itomena!- esan zuten ikasle batek baino gehiagok*
- *Eta beroa!*
- *Niri urduri jartzen nau- gehitu zuen beste batek*
- *Niri beldur pixka bat ematen dit*
- *Niri alaitasuna, nik uste dut zerbait ospatzen ari direla!*

- 2. argazkia:



**Irudia 8.** " La Piste" hondartza (Landak, Frantzia)- "David Cidre"-ren argazkia

*Ikasleei irudi honetan zer ikusten zuten galdetu genienean, erantzun desberdinak bota zituzten:*

- *Itsasoa*
- *Hondartza*
- *Ilunabarra*
- *Egunsentia*
- *Donostia*
- *Paradisua*

*Gauza bera gertatu zen, irudi horrek zer komunikatzen zitzaaien galdetu genienean:*

- *Poza, zorientasuna*
- *Oporrak*
- *Lasaitasuna*

---

- *Bakardadea*

- *Isiltasuna*

– 3. argazkia:



**Irudia 9.** "Alaitxo"<sup>21</sup>

*Ikasleak irudia ikusi eta berehala oihuka hasi ziren:*

- *Alaitxo da! Alaitxo da!*

*Ikasleei irudi honek zer komunikatzen zitzaien galdetu genienean hauek izan ziren emandako erantzunak:*

- *Euskaraz hitz egin behar dugula!*

- *Alaitasuna*

- *Eskola*

*Aldiz isilik geratu ziren hurrengo galdera entzutean:*

- *Eta zuek uste duzue beste ikastetxe bateko ikasle batzuei irudi hau erakusten badiegu gauza bera erantzungo dutela?*

---

<sup>21</sup> Ezkaba Ikastetxe publikoko ( Antsoain, Nafarroa) maskota da. Bera ikasleek hitz egiten duten euskaraz elikatzen da.

*Esan bezala, ikasleak isilik geratu ziren pentsakor. Halako batean ikasle batek isiltasuna apurtu zuen:*

- *Nik uste dut ezetz- ikasleek arrazoia eman zioten*
- *Agian bakarrik ikusiko dute hodei bat- gehitu zuen beste batek*
- *Bai, baina azaltzen badiegu nor den jakingo dute nor den "Alaitxo" eta orduan bai- ikasleei ez zitzaien asko gustatu haur guztiek "Alaitxo" nor zen ez jakitearen ideia.*

– 4. argazkia:



**Irudia 10:** *Miel Otxin eta Momotxorroak Lantz-eko inauterietan*<sup>22</sup>

*Ikasleek berehala identifikatu zituzten irudietako pertsonaiak, irudia zer komunikatzen zitzaien galdetu genienean, guztiek "inauteriak" hitza oihukatu zuten.*

- *Eta...zuek uste al duzue pertsona Txinatar bati irudi honek inauteriak direla komunikatuko diola?*

*Ikasleak pentsakor geratu ziren eta ondoren ezetz erantzun zuten:*

- *Ez! Agian Txinan inauteriak beste modu batez ospatzen direlako*

<sup>22</sup> Ariketa hau inauteriak pasa eta aste gutxitara egin genuen. Horrexegatik inauterien festetako irudi bat aukeratzea erabaki genuen.



---

- Orduan, txinatar batek inauteriak irudikatzeko irudi hau erabiliko zuela pentsatzen duzue?

*Ikasleek berriz ere ezetz erantzun zuten*

*Ondorio batera iristeko nahian ondorengoa galdetu nuen:*

- Orduan, pertsona bakoitzak bere kulturaren arabera gauza bat modu desberdinez irudikatu dezake?

*Ikasleek baietz erantzun zuten. Ikasleen erantzuna ziurtatzeko, ikasleei Eguberriak irudikatzeko zer pertsonaia erabiliko zuten galdetu genien. Ikasle guztiek "Olentzero"<sup>23</sup> erantzun zuten, aldiz, haur ingeles batek Eguberriak nola irudikatuko lituzke galdetu genienean, "Papá Noel"<sup>24</sup> pertsonaia aipatu zuten.*

---

<sup>23</sup> Olentzero Euskal Herriko pertsonai mitologiko bat da. Pertsonai honek Olentzerok bere subil magikoa erabiltzen du umeak ikusteko eta ikasleek izandako jarreraren arabera, Eguberrietan opariak edo ikatza banatuko die.

<sup>24</sup> Eguberriko pertsonaia tradizionala da Mendebaldeko gizartean, ume zintzoei opariak ekartzen dizkiena Gabon-gauean (abenduarien 24tik 25erainoko gaua) edo San Nikolas egunean (abenduarien 6a).

– 5. argazkia:



**Irudia 11.** Emaztegai bat hondartzan. "ThankyouMagazine" aldizkaria

*Ikasleei irudian zer ikusten zuten galdetu genienean erantzun hauek eman zituzten:*

- Hondartza
- Emakume bat
- Emaztegai bat

*Ikasleei irudiak zer komunikatzen zitzaaien galdetu genienean, hurrengo erantzunak eman zituzten:*

- Lasaitasuna
- Uda
- Isiltasuna
- Poza

*Ondoren ikasleei azaldu genien kultura bakoitzak badituela kolore jakin batzuekiko kode-mailako interpretazioak; gurean beltza koloreak dolua adierazi dezake eta zuriak, "garbitasuna". Txinatarrentzat kolore gorria zorte onaren adierazlea zela azaldu genien, eta Japonian zuria zela doluaren adierazlea. Nire azalpena justifikatzeko ondorengo argazkia erakutsi nien:*



### ***Irudia 12. Hila Japoniar bat***

*Hori azalduta, ondorengo galdetu genien ikasleei:*

*-Orduan, uste duzue japoniar bati irudi horrek ( Irudia 11.) guri komunikatzen digun gauza bera komunikatuko liokeela?*

*- Ez, irudian soineko zuria duen emakume bat agertzen denez, agian japoniar batentzat norbait hil dela adierazten du.- azaldu zuen aurretik irudian emaztegai bat ikusten zuela esan zuen ikasle batek.*

*-Tristura - lagundu zion beste ikasle batek*

*Ikasleek arrazoia eman zioten.*

*- Orduan, pertsona bakoitzak bere kulturaren arabera irudi bat modu desberdinez interpretatu dezakegu?*

*Ikasleek baietz esan erantzun zuten.*

### ***4. Jarduera: Emozioak irudikatzen***

Jarduera hau proposatu baina egun bat lehenago ikasle batek ondorengo bi marrazkiak ekarri zituen etxetik klasera:



**Irudia 13.** Ikasle batek komunikabide desberdinak irudikatzeko egindako marrazkia.



**Irudia 14.** Ikasle batek irudien bitartez emozioak komunikatzen ahal direla irudikatzeko sortutako marrazkia.

Ikasle honi beste ikasleei bere marrazkiak azaltzeko aukera eman genion. Lehenengo marrazkiaren bitartez, komunikatzeko modu desberdinak irudikatu zituen. Bigarren irudiaren bitartez, irudien bitartez emozioak irudikatu ahal ditugula irudikatu zuen.

Azken honetan oinarrituta ondorengo ariketa aurrera eraman genuen:

Guztion artean lau emozio aukeratu genituen (poza, beldurra, tristura eta maitasuna). Ikasleak lau sei mahietan esertzen zirenez, taldekide bakoitzak emozio horietako bat aukeratu eta irudikatu behar zuen (horrela egin genuen ikasleek bere artean kopiatzeko aukera ez izateko).

Horretarako, kolore desberdinetako paperak, margotzeko material ezberdinak (klarionak, argizariak, tenperak...) guraizeak eta itsaskina utzi genizkien mahai baten gainean.

Ariketa egin ondoren, klasean lau txoko egin genituen, txoko bat emozio bakoitzerako. Txoko bakoitzean emozio hori irudikatzeko ikasleek sortutako lanak jarri genituen.

Ariketa honen bitartez ikasleak ikusiko dute pertsona bakoitzak errealitate bera, (kasu honetan emozio bera) modu desberdinean irudikatzen ditugula.

- Ikasleen erreakzioak:

*Ikasleei ariketa proposatu genienean emozioak irudikatzeko gai ez zirela esaten zuten. Ikasle batzuk, beste taldeetan egiten ari zutena ikustera joaten ziren, haien produkzioak kopiatzeko asmoz. Kostatu egiten zitzaien eredurik ez jarraitzea.*

*Hala ere, denbora pixka bat pasata eta ikasleek materialekin esperimentatzen hasi zirenean, proiektio desberdinak egiten hasi ziren.*

*Hauek dira ikasleek bere irudikapenen bitartez sortutako lau txokoak:*

- *Pozaren txokoa:*



**Irudia 15.** Ikasleek pozaren irudikapenen bitartez osatutako “pozaren txokoa”

- *Tristuraren txokoa:*



**Irudia 16:** Ikasleek tristuraren irudikapenen bitartez osatutako “tristuraren txokoa”

- *Maitasunaren txokoa:*



**Irudia 17.** Ikasleek maitasunaren irudikapenen bitartez egindako "maitasunaren txokoa"

- *Beldurraren txokoa:*



**Irudia18.** Ikasleek beldurraren irudikapenen bitartez osatutako "beldurraren txokoa"

### **5. Jarduera: Gezurraren jolasa**

Klasean, komunikabideen inguruko proiektu bat aurrera eramaten ari zen heinean, ikasleak prentsa idatziaren inguruko ezagutzak lantzen hastera zihoazen. Komunikabide horren ikasketari sarrera emateko, ondorengo jarduera aurrera eraman zen:

Jarduera hau informatika gelan egin genuen. Jarrera urduriarekin gelan sartu nintzen, ikasleei gauza harrigarri bat erakutsi behar niela esanez, berri harrigarri bat. Ikasleei esan ez niena, berri hori nik neuk sortutako eta manipulaturako berri zela, izan zen.

Jadanik existitzen zen berri bati irudia aldatu nion<sup>25</sup> eta irudiaren arabera berriaren informazioa ere eraldatua izan zen. Modu horretan, guztiz manipulaturata zegoen berri bat eskaini nien ikasleei; 39 urteko zientzialari japoniar batek Ilargiraino iristen den 384.400 kilometrotako eskailera asmatu zuela ziurtatzen zuen berri bat.<sup>26</sup>

---

<sup>25</sup> *Argia.com*. (s.f.).2014ko eskainaren 6an berreskuratua, [http://www.argia.com/blogak/mikel\\_garcia/2008/10/10/36000-kilometroko-igogailua/-\(e\)tik](http://www.argia.com/blogak/mikel_garcia/2008/10/10/36000-kilometroko-igogailua/-(e)tik)

<sup>26</sup> Berri hau aukeratu genuen, klasean landu zuten aurreko gaia unibertsoa izan zen heinean, asko gustatzen eta interesatzen zitzairen gai bat zela bagenekielako. Bai eta horren ondorioz inauterietan astronautez mozorrotu zirelako.



## 384.400 KILOMETROTAKO ESKAILERA

29 urteko emakume Japoniar batek ilargira joateko 384.400 kilometrotako eskailera eraiki du.

2014/04/27

*Estibaliz Elkano Garde*

Ez da txantxa, Yuri Hosynagak, 29 urteko emakume zientzialari batek, lehenengo eskailera espaziala eraiki du. Nola? Kohete baten bitartez, ilargian satellite geldikor bat kokatu du Lurrarekin batera bira egiten duena, modu honetan beti Japoniaren gainean mantenduko da. Satellite hura Lurrarekin batera lotzeko, eskaileraren barrutik joango den burdinazko barra bat gaineratu zion ondoren.

Zergatik? Kohetez bidaiatzea oso garestia delako, eta gaur egungo krisia dela eta, Hosynaga-k espaziora bidaiatzeko modu merkeago bat bilatu nahi izan du. Gainera eskailera honi esker, lortuko da Japoniara turista gehiago

joatea, kuxkuxeroek eskailera ikusteko eta ausartek, igotzeko.

Agian, urte batzuk barru Lurretik espaziora eramaten gaituen igogailu bat edota, taberna bat irekiko dute satelitean bertan. Eta beharbada, han "goitik" Lurrari begiratuta, egitasmoak arrakasta badu eta beste herrialdeek kopiatzen badute, trikuaren antza izango du gure planeta.



*Yuri Hosynaga bere eskailera espazialean igotzen.*

**Irudia 19.** Ikasleei banatutako albiste manipulaturia

Ikasleek aukietan eserita korro bat osatu zuten eta berria banatu zitzairen. Guztiok elkarrekin berria irakurri genuen eta ondoren, norberak bere bururako irakurri zuen berria berriz ere. Behin hau irakurrita, ikasleek ulertzen ez zituzten hitzak argitu genituen eta ondoren, guztion artean irakurgaiari agertzen zen informazioa aztertu genuen.

Ariketa hau egiteko, Joan Fontcuberta<sup>27</sup> argazkilari kritikoa oinarritu nintzen<sup>28</sup>. Hortaz, behin berria aztertuta, ikasleek interneten bitartez "Joan Fontcuberta" nor zen bilatzea eskatu zitzairen, bai eta bere lanak aztertzea ere.

Ariketa honen bitartez, ikasleek ikusten zutenaren eta ezagutzen zutenaren arteko kontraesana lortu nahi zen. Modu honetan, begiek ere engainatzen gaituztela eta mundua ulertzeko moduan eragiten dutela konturatuko dira. Ikasleek erreala dirudien hori zalantzan jartzen ikasiko dute, haien jarrera kritikoa sustatuz. Ariketaren beste helburua, ikasleek irudiek informazio bat ziurtatzeko duten indarrak ere kontziente izatea zen.

---

<sup>27</sup>Joan Fontcuberta 1955ko otsailaren 24an Bartzelonan (Katalunia) jaiotako argazkilari bat da. Argazkilari bezala egindako lana errealismo fotografikoa naturaltasunaren eta artifizialtasunaren eta egiaresaren eta faltsuaren arteko nahasketaren bidez iraultzean datza. Horren adibide, *frottogramak* irudi fotografikoaren eta *frottage* surrealismaren arteko sintesia ditugu, informazio bisualari negatiboaren marratuaren ukimen-informazioa gehitzen diotenak. Argitaratu dituen lanen artean, *Herbarium* (1984) eta *Fauna* (1988, Pere Formiguerearekin batera egindakoa) azpimarratzekoak dira.

Erakusketa askotan parte hartu du eta hainbat sari jaso ditu, horien artean, Alemaniako Fotografische Akademiek Octavious Hill domina 1988an eta Kataluniako Kultura Sari Nazionala 2010ean, aurkitzen ditugu.

<sup>28</sup> Febrer, M., & Ventura, M. (2010). ¿ Es real la realidad?. *Cuadernos de pedagogía*, (400), 26-29.

- Ikasleen erreakzioak eta erantzunak

*Albistea banatu eta berehala, soilik berriaren izenburua eta irudia ikusita oso harritsuak geratu ziren ikasleak:*

*- Ezin dut sinetsi nire begiek ikusten dutena!- aitortu zuen ikasle batek- baina hau egia da?*

*Ikasleei lasaitzeko eskatu genien eta berri osoa irakurtzeko. Berria irakurri ondoren, testuan agertzen ziren zenbait hitzen esanahia argitu eta testuko informazioa aztertu ondoren, hurrengo elkarrizketa izan genuen ikasleekin:*

*- Zer uste duzue eskailera espazial honen inguruan?Idea ona iruditzen zaizue?*

*Ikasleek, oraindik harritsuak, baietz erantzun zuten oihuka.*

*- Orduan zuek Japoniarra joango zinateke eskailera hori ikustera?eta igotzera?*

*Ikasle guztiek Japoniara joango litzaketela esan zuten, aldiz, gutxi batzuk esan zuten eskailera igotzera ausartuko zirela:*

*- Bai, nik joan nahi dut nire familiarekin Japoniarra bizitzera, baina bakarrik eskailera ikustera, argazki asko ateratzera, igotzera ez!*

*- Nik igo nahi dut!*

*- Baina erortzen bazara zer?- erantzun zion ikasle batek kezkatu*

*- Agian eskailerara igotzen zarenean, jausgailuak banatzen dituen pertsona bat dago- bururatzen zaio beste bati*

*- Bai edo agian astronauten jantzia eraman dezakegu- bururatzen zaio beste bati*

*- Nik uste dut ezetz, irudian agertzen den emakumea soineko bat eramaten du bakarrik- esan zuen beste batek*

*- Gainera oinutsik dago!- jarraitu zuen beste batek*

*- Agian jarri zen soinekoa argazkian polita agertzeko- bururatu zitzaion beste bati*

*- Orduan ez zaizue oso segurua iruditzen asmakizun hau?- jarraitu nuen elkarrizketa*

*Ikasle gehienek ezetz erantzun zuten:*

- *Ez...zer gertatzen da eguraldi txarra egiten badu?*
  - *Eta bidetik nekatzen bagara?gure bila etortzen dira?*
  - *Baina...zenbat denbora kostatzen du Ilargiraino joateak?- galdetu zuen beste batek.*
  - *Egunak eta egunak...-erantzun nuen eta ikasleak hamaika galdera egiten hasi ziren.*
  - *Eta lo egiteko?*
  - *Eta eraman dezakegu bazkaria?*
  - *Eta pisa eta kaka egiteko- hasi ziren ikasleak barrezka*
  - *Agian bidetik geltoki batzuk daude eta txabolak daude- bururatu zitzaion beste bati*
  - *Ez, irudian ez dira geltokirik ikusten- erantzun zuen ikasle batek*
  - *Ba orduan, ia ia ezinezkoa da eskailera hori igotzea!- ondorioztatu zuen beste ikasle batek.*
  - *Baina...egia izango ote da berri hau?- galdetu nuen nik*
- Hori galdetu bezain azkar ikasleek ezetz esaten hasi ziren:*
- *Nik uste dut ezetz, munduan ez dago hainbeste kilometrotako eskailera bat egiteko adina burdinarik!*
  - *Ezinezkoa da- esaten zuten beste batzuk*
  - *Baina irudian Ilargiraino iristen den eskailera bat ikus dezakegu- esan nien nik irudiari zein honen eraginari garrantzia emateko helburuarekin.*
- Ikasle guztiek bere iritzia esaten hasi ziren oihuka, berria errealitatean gezurra dela konturatu ziren eta.*
- *Bai, baina agian ez da benetazko argazkia*
  - *Agian da marrazki bat!*
  - *Edo agian erabili dute photoshop programa<sup>29</sup>*

---

<sup>29</sup> Adobe Photoshop, edo Photoshop soilik, Adobe Systems-ek garatutako irudi editorea da. Irudiekin lan egiteko tresnarik erabiliena da gaur egun.

---


- Orduan irudi batek azaltzen diguna ez da beti erreala izan behar??

*Ikasleek pentsakor geratu ziren:*

- Ez...beti ez- hasi ziren ikasleak erantzuten

*Behin ondorio honetara iritsita, ikasleei berria nola egin nuen azaldu nien, ikasleak parrez zeinen gezurtia eta tranpatia nintzen oroitarazten zidaten bitartean. Modu berean, ariketa hori egiteko Joan Fontcuberta argazkilariak egindako obretan oinarritu nintzela azaldu nien. Ikasleek berehala, Joan Fontcuberta nor zer galdetzen hasi ziren eta, interneten bere lanak bilatzera gonbidatu nituen. Ikasleak behin eta berriz esaten zuten "baina berri/argazki hau ez da erreala ezta?".*

Hauek dira ikasleek aztertutako zenbait irudi:



**Irudia 20.** “Sputnik” ( Joan Fontcuberta)



**Irudia 21.** Herbarium (Joan fontcuberta)



**Irudia 22.** Fauna secreta (Joan Fontcuberta)

### **6. Jarduera: itxurak gaintuz**


Behin, irudiek ez dutela zertan errealitate bat irudikatu behar ikasleekin landuta, ikasleek itxura gaintuz eta begiekin perzibitzen duten hori zalantzan jartzea lortu nahi izan zen. Bai eta perspektibaren arabera irudi bera esanahi desberdinak izan ahal dituelako kontzientzia ikasleengan eraikitzea ere.

Horretarako, ikasleak lurrean eseri ziren eta ilusio optiko bereziak sortzen dituzten argazkiak aztertzea eskatu genien (argazki horiek <https://twitter.com/ilusionOptica1> web gunetik hartuak izan dira).

Aipatzekoa da ere, ariketa hau proposatu zenean ikasleek jadanik prentsa idatzia lantzen bukatzen ari zirela, eta telebista zein iragarkiak lantzen hasi behar zirela. Hortaz, ariketa honen bitartez gai horri sarrera eman genion.

- Ikasleen erreakzioa eta erantzunak:

- 1. Argazkia:



**Irudia 23.** Gizon bat amildegi batetik erortzen ( 1. perspektiba)


*Ikasleek irudia ikusi eta berehala oihuka hasi ziren. Pixka bat lasaitu zirenean irudia deskribatzea eskatu nien:*

*-Gizon bat erortzen ari da!-erantzun zuten ikasle guztiek.*

*Guztiek bat izan ezik:*

*- Ez, ez!- hasi zen bat-batean ikasle bat oihuka- buelta eman argazkiari! txantxa bat da!*

*Ikasleari azaltzeko eskatu nion eta berak irudia nahi zuen bezala bere ikaslagunei erakustea eskatu nion. Irudiari buelta ematean, ikasle guztiek harrিতuta geratu ziren eta parrez hasi ziren.*



**Irudia 24.** Gizon beste gizon baten gainera salto egiten (2. perspektiba)

- Orain gauza bera ikusten duzue?- galdetu nien ikasleei, ikasleek ezetz erantzun zuten parrez.
- Nik nire lehengusinarekin horrelako argazkiak ateratzen ditut, baina txantxetakoak dira- argitu zuen azalpena emandako ikasle berak.
- Orduan, segun eta ze perspektibaz begiratzen dugun irudi bat, gauza bat edo beste bat dirudi dezake?- galdetu nuen ondorio batera iritsi nahian.

Ikasle guztiek baietz erantzun zuten.



– 2. Argazkia:



**Irudia 25.** Tigre baten irudia (1. perspektiba)

*Ikasleei hurrengo argazkia deskribatzea eskatu nien:*

*- Zer ikusten duzue irudi honetan?-hasi nuen elkarrizketa*

*-Tigre bat!- Erantzun zuten ikasleek*

*- Nolakoa da tigrea?- ikasleek "tigrearen" ezaugarri fisikoak deskribatzen hasi ziren- eta benetakoa ala gezurrezkoa izango da?*

*Ikasle gehienek gezurrezkoa zela esaten hasi ziren, irudi hori ez zela tigre baten argazkia, baizik eta tigre baten marrazkia esaten hasi ziren.*

*Bat-batean ikasle batek irudiari buelta ematen hastea eskatu zidan (aurreko irudiarekin egin genuen bezala). Nik irudiari buelta eman nion eta ondoren ziurtasunez esan zuen:*

*- Bai , bai, tigre bat da*

*Momentu horretan, hurrengo argazkia erakutsi nien:*



**Irudia 26.** Emakume bat bere gorputz eta pareta margotuak erabiltzen tigre bat irudikatzeko (2. perspektiba).

*Ikasleak erabat harrিতuta geratu ziren eta bi irudien arteko konparaketa egiten hasi ziren:*

*- Ez da tigrea, emakume bat baizik!- hasi ziren ikasleak oihuka*

– 3. Argazkia:



**Irudia 27.** Etxe baten eta honen igerileku handiaren irudia. (1. perspektiba)

*Hirugarren irudia erakutsi eta berehala ikasleek, zalantzan jartzen zuten bere begiekin pertzibitzen zutena:*

*- Ez da igerilekua, lurra margotu dute!- esaten zuten batzuk*

- Ordenagailuz egin dute!-beste batzuk

*Bat-batean, ikasle batek oihuka hasi zen:*

- Ez, ez! nik badakit nola egin duten!- hitz egiteko txanda eman nion- jarri dute argazki kamara bat igerileku batetik oso hurbil eta orduan badirudi igerilekua oso handia dela, baina errealitatean txikiagoa da!- azaldu zuen ikasleak segurtasun osoz

*Ikasle askok ez zuten bere azalpena ongi ulertu eta hurrengo irudia erakutsi nien:*



**Irudia 28.** Etxe baten eta honen igerileku txikiaren irudia ( 2. perspektiba)

*Irudia ikustean berehala ulertu zuten ikasleak egindako azalpena eta horren inguruko hipotesiak egiten hasi ziren:*

- Agian, hori egin dute guk pentsatzeko igerilekua oso handia dela eta oporretara hara joateko (Aste Santuen oporretatik bueltan geunden ariketa hau egin genuenean)

- Orduan, non uste duzue aurkitu al ditugula mota honetako irudiak?-galdetu nuen nik

- Interneten- erantzun zuten askok

- Baina interneten non?-Gehiago zehaztea eskatu nien

*-Iragarkietan!- erantzun zuen beste batek*

### **7. jarduera: Iragarkiak aztertzen**

Ikasleek telebistaren aurrean pasatzen duten ordu kopuruen eta honen aurrean duten jarreraren inguruko ondorengo ariketa egin zuten.

• Osa ezazu azpiko galdetegia, eta, ondoren, kalkula itzazu lortutako puntuak: EZ erantzutean, puntu bat eta BAI erantzutean, bi puntu lortzen dituzula kontuan izanik.

PUNTUAK GUZTIRA	
5-6 puntu lortu baldin badituzu:	ARRISKUAN ZAUDE, DESKUIDATUZ GERO, TELEBISTAK LELOTU EGINCO ZAITUI
7-8 puntu lortu badituzu:	TELEBISTAREKIKO ZURE JARRERA HOSETU DATEKE!
9-10 puntu lortu badituzu:	PRIMERAN, TELEBISTA ERA EGOKIAN IKUSTEN DUZU!

23  
hogata hitu

**Irudia 29.** Ikasleek egindako ariketa (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003)

Galdetegiaren azken galderak iragarkiei zein ikasleek iragarkien aurrean izaten duten jarrerari erreferentzia egiten zion. Azken galdera horretan oinarrituta, iragarkien zein horien aurrean izan beharreko jarrera kritikoaren lanketan sakontzean erabaki zen.

Modu horretan, ikasleei bere ingurunera begiratzea eta egun horretan zehar iragarkiak ikusten zituzten leku ezberdinak paper batean idaztea eskatu zitzaien. Ondoren, iragarkiak ikustera ohituta ez gauden zenbait lekuen irudiak erakutsi zitzaizkien<sup>30</sup> eta horietan aurkitzen ditugun iragarkiak aztertu genituen. Behin iragarkiak aztertuta, eta azterketa horretan lortutako ondorioak kontuan hartuz, iragarkien ezaugarriak zeintzuk ziren definitu genituen.

Ariketa honen helburua, ikasleek iragarkiek hartzen duten espazioa zabalaz kontziente izatea zen, bai eta hauen izaera ezagutzea ere. Hau da, iragarkien ezaugarriak eta helburuak, zein azken horiek lortzeko erabiltzen dituzten estrategiak ezagutzea. Horren bitartez hauekiko jarrera kritikoa sustatuz.

- Ikasleen erreakzioak eta erantzunak iragarkiak aztertzerakoan:

*Ikasleak lurrian eseri ziren zirkulu bat osatuz, eta banan-banan iragarkiak aurkitzen ditugun leku ezberdinak aipatzea eskatu nien. Hori esan eta berehala, ikasle batek esan zuen:*

*- Baina, ez dugu inoiz amaituko, leku guztietan daude eta!*

*Ikasleei bakoitzak bat esatearekin aski zela argitu nien. Oso leku anitzak aipatu zituzten: komunikabideetan (telebistan, irradian, interneten...), kalean (paretetan, geltokietan, dendetan...), zenbait produktuetan (boligrafoetan, egutegietan...), beste batzuen artean.*

*Ondoren, hurrengo iragarkiak erakutsi nizkien ikasleei:*

---

<sup>30</sup> *Planetacurioso.com.* (s.f.). 2014ko ekainaren 3an berreskuratua, <http://www.planetacurioso.com/2012/01/24/10-anuncios-curiosos-realizados-en-escaleras-mecanicas/>-(e)tik eta *Publicidadcomanche.blogspot.com.es.* (s.f.). 2014ko ekainaren 3 berreskuratua, <http://publicidadcomanche.blogspot.com.es/2013/11/publicidad-en-lugares-extranos.html> -(e)tik hartutako irudiak.

– 1. Iragarkia:



**Irudia 30.** Jatetxe barazkijalea baten irekiduraren iragarkia zuhaitz batean

*Iragarki hau erakutsi eta berehala ikasleek hasi ziren esaten irudia ez zela benetakoa:*

- *Berriz ere engainatu nahi gaituzu! sardexka batetik ezin dira hostoak atera!*
- *Nik badakit nola egin duten! Sardexka handi bat itsatsi dute zuhaitzaren enborrean!*

*Ikasleek irudia ikusterakoan izan zuten lehenengo erreakzioa ikusita, aurreko ariketan ikasleekin lortu nahi nuen helburua lortu nuela konturatu nintzen: ikasleek jarrera kritikoa zuten forma bisual baten aurrean eta gauzak errealitatean direnari, diruditenari baina garrantzia gehiago ematen zioten.*

*Modu horretan, ikasleei ariketa honen helburua berriz ere azaldu genien:*

- *Gaur iragarkiak ikusten ditugun leku desberdinak ezagutuko ditugu, eta iragarki bakoitzak zer iragarri nahi duen aztertuko dugu.*

*Ikasleek iragarki honek hurrengoak iragartzen zituela esan zuten: brokoliak, entsaladak, munduko sardexkarik egonkorrenak, barazkiak...*

– 2. Iragarkia:



**Irudia 31.** 3M: babestasan handiko kristalen iragarkia autobus geltoki batean.

*Ikasleek iragarkia ikusterakoan, aurreko iragarkia ikusterakoan izandako erreakzio bera izan zuten: irudia zerbait erreala irudikatzen ez zuela pentsatu ez ezik, irudi hori egiteko erabilitako estrategien inguruan hausnartzen hasi ziren.*

*- Nik badakit nola egin duten!! errealitatean atzeko partean ez dago kristalarik*

*- Seguru dirua ez dela benetazkoa! ezinezkoa da!*

*Irudi hau zerbait iragartzeko erabili zutela azaldu nien, baina zer?*

*- Krisia!krisia!- hasi ziren batzuk oihuka*

*- Ez, esan nahi duena da kristalak oso garestiak direla!- esan zuen beste batek*

*- Ez, ze iragarki bat da, horrela ez dute kristalak salduko!- erantzun zion berehala beste ikasle batek*

*- Orduan, uste duzue kristalak saldu nahi dizkigutela?- galdetu nuen nik, ikasle batzuk baietz erantzun zuten- kristal bat kalitatezkoa den edo ez jakiteko nolakoa izan behar da?*

*-Garbia!- erantzun zuen batek*

*- Erresistentea*

*- Nik badakit! Nik badakit- oihukatu zuen ikasle batek eta nik hitza eman nion- jarri dute dirua kristalaren barruan guk diru saiatzen hartzeko baina kristalak oso lodiak direnez ezin ditugu apurtu!*

*Ikasleek azken erantzun horrekin ados zeuden. Hala ere, zenbait ikasleek, dirua seguruenik egiazkoa ez zela ziurtatzen zuten, inork ez zela arriskatuko bere dirua kalean uztera.*

– 3. Iragarkia:



**Irudia 32.** *kit-kat-ren iragarkia banku batean*

*Ikasleek irudia ikusi bezain laster ezagutu zuten iragarki honek saldu nahi zuen produktua:*

*-Kit-Kat! Kit-kat!- hasi ziren ikasleak oihukatzen eta berehala irudia nola egin ote zen inguruan hausnartzen hasi ziren berriz ere:*

*- Ez da benetazko txokolate banku bat! margotu dute!*

*- Agian ordenagailuarekin egin dute, oso ongi margotuta dago eta!*

*- Eta zergatik uste duzue erabili dutela banku bat "kit-kat-a" iragartzeko?- galdetu nuen nik*

*- Bankuaren xafilen forma eta "kit-kat-ren" forma oso antzekoak direlako!- erantzun zuten ikasleek oihuka.*

– 4. Iragarkia:





**Irudia 33.** "The simpsons" pelikularen iragarkiak komertzio zentro bateko eskailera mekanikoetan

*Ikasleek irudiak ikusi eta berehala oihuka hasi ziren:*

*-Homer da! Simpsons<sup>31</sup>-ak dira!*

*- Orduan zer uste duzue iragarri nahi dutela irarki honek?*

*-Homer-ren donouts-ak- erantzun zuten ikasle gehienek*

*- Ez! Simpsonen pelikula, kartelean jartzen du!- esan zuen ikasle batek bigarren argazkian agertzen den kartela seinalatuz.*

*- Eta non aurkitzen dugu iragarki hau?*

*- Eskailera mekanikoetan!- erantzun zuten ikasleek*

*- Eta zergatik uste duzue erabili dituztela eskailera mekanikoak iragarki hau egiteko?*

*- Eskailerak mugitzen direnean donouts-ak jaten dituela dirudielako- erantzun zuen berehala ikasle batek*

*- Eta gainera jende asko hortik pasatzen delako eta orduan iragarkia ikusiko dute!- gehitu zuen beste batek.*

<sup>31</sup> Simpsondarrak (ingelesez *The Simpsons*) Matt Groeningek telebistarako sortutako marrazki bizidun telesail arrakastatsu bat da.

Iragarki horiek aztertu ondoren, azken iragarki bat erakutsi nien eta ondorengo istorioa kontatu nien:

- 5. Iragarkia:



**Irudia 34.** Port Aventura jolas parkean egindako "Angkor" izeneko gune berriaren iragarkia.

*"Badakizuen bezala ni Aste Santuko oporretan Port Aventura (Tarragona, Katalunia) jolas parkera joan nintzen nire lagunekin. Entzuna genuen jolas parkean gune berri bat egin zutela eta gogo handia genuen hori ezagutzeko. Baina joan baino lehen, iragarki hau ikusi nuen (Irudia 34) eta pentsatu genuen agian parkea soilik familientzat zela, eta agian ezin genuela joan".*

*Ikasleek barrezka hasi ziren eta nahi duenak joan daitekeela azaldu zidaten, bai eta iragarkian familia baten irudia agertzen zela askotan familiak joaten zirelako.*

*- Eta nolakoa da iragarkian agertzen den familia?- galdetu nien ikasleei*

*Batzuk, askok, "normala" zela erantzun zuten:*

*- Normala? eta zer da familia normala?- galdetu nuen nik- familia guztiak horrelakoak dira?*

---

*Ikasle batzuk hasieran baietz erantzun zuten arren, berehala ikasle batzuk kontrakoa argudiatu zuten:*

*- Ez, adibidez nire gurasoak bananduak daude, eta nire aitak neskalaguna dauka.*

*- Nire gurasoak ere bananduak daude- gehitu zuen beste ikasle batek*

*- Nik ez ditut anai-arrebarik- beste ikasle batek*

*Ikasleek iragarkiaren agertzen zen familiaren eta bere familiaren arteko konparaketa egiten hasi ziren, eta familia mota desberdinak zeudela ondorioztatu zuten.*

*- Eta orduan, Port Aventuran soilik argazkiak agertzen diren bezalako familiak joaten direla pentsatzen duzue?*

*Ikasle guztiek ezetz erantzun zuten.*

*- Ez, ni joan nintzen bakarrik nire izebarekin adibidez*

*- Ni joan nintzen nire aita eta bere neskalagunarekin- azaldu zuen beste ikasle batek.*

- *Ikasleen erreakzioak iragarkien ezaugarriak definitzerakoan:*

*Iragarkiak aztertu ondoren, iragarkien ezaugarriak zeintzuk ziren aipatzea eskatu genien ikasleei eta arbelean idatzi genituen.*

*Aipatzekoa da ikasleei iragarkien ezaugarriak proposatu genienean berehalaxe hasi zirela ideia ezberdinak aipatzen:*

*- Leku askotan daude- aipatu zuten ikasle batek baino gehiagok*

*- Erakargarriak dira- Esan zuten beste batzuk*

*- Eta zergatik dira erakargarriak? Erakutsi dizkizuedan iragarki horietatik zer sortatzen zaizue erakargarria?- galdetu nuen nik*

*- Sardexka erraldoia!*

*- Eta Kit-kat erraldoia!*

*- Eta uste duzue errealitatean jatetxe horretako sardexkak hain handiak izango direla?- galdetu nien ikasleei*

- *Agian bai- erantzun zuen ikasle batek*
- *Ez! bestela janaria ere erraldoia izango litzateke eta ez da janari erraldoia existitzen!- erantzun zion beste batek*
- *Gainera ezin dugu horren tamainako sardexka bat ahoan sartu!- lagundu zion beste batek eta ikasleak parrez hasi ziren.*
- *Eta uste duzue "kit-Kat"-ak errealitatean hain handiak direla?- galdetu nuen nik*
- *Ez! Nik askotan jan ditut eta askoz ere txikiagoak dira!- erantzun zuen berehala ikasle batek.*
- *Jan dituzula? Orduan "Kit-Kat"-ak ez dira esertzeko edo zer?- galdetu nien ikasleei harridura aurpegia jarritz.*
- *Ez! ez dira esertzeko, jateko dira!- hasi ziren ikasleak parrez*
- *Orduan iragarkiak txantxak ere egiten dizkigute edo zer? ze irudian gizon bat eserita agertzen da!- galdetu nien ikasleei*
- Ikasleek oihuka baietz erantzun zuten*
- *Eta Port Aventurako niri antzeko zerbait gertatu zitzaidan, oroitzen zarete?*
- *Bai, ez da bakarrik mota horietako familientzat- erantzun zuen ikasle batek*
- *Erakutsi dizkizuedan iragarki horietatik zerbait gehiago sortatzen zaizue erakargarria?- galdetu nuen berriz*
- *Homer Simpson!*
- *Irudiak!- erantzun zuen batek*
- *Nolakoak dira irudiak?- galdetu nuen nik*
- *Kolore asko dituzte eta handiak dira*
- *Niri atentziora deitzen didana hauek agertzen diren lekuak dira, adibidez eskailera mekanikoak- gehitu zuen beste batek*
- *Orduan, zuen ustez iragarkiak gure atentziora deitzeko irudi eta leku desberdinak erabiltzen dituzte? galdetu nuen nik*
- Ikasleek baietz erantzun zuten*

- *Eta zergatik uste duzue gure atentzioa deitu nahi dutela?*

*Ikasle batzuk isilik geratu ziren*

- *Horrela politak direlako!- erantzun zuen batek*

- *Guk iragarkiak begiratzeko- beste batek*

- *Baina zertarako, zer lortzen dute horrekin?- galdetu nuen berriz*

- *Nik badakit! Nik badakit!- hasi zen ikasle bat urduritzen- guk gauzak erosteko!*

*Beste ikasleek bere erantzunarekin ados zeudela erakutsi zuten.*

*Ikasleekin izandako elkarrizketa kontuan hartuz, zerrenda hau idatzi genuen arbelean eta ikasleek bere koadernoetan idatzi zuten:*

– *Iragarkien ezaugarriak:*

a) *Leku askotan daude*

b) *Erakargarriak dira: irudi eta esaldi erakargarriak erabiltzen dituzte*

c) *Exageratu egiten dute*

d) *Zerbait komunikatu nahi digute*

e) *Txantxak egiten dituzte*

### **8. Jarduera: Gure asmakizunak!**

Hurrengo ariketa, txanela liburuak (Barrena, Josi, & Maite, Txanela; Lehen Hezkuntza; Lehenengo Zikloa; 2. maila, 2003) proposatzen duen 25. jardueraren egokitzapena eta luzapena da ( ikusi Eranskina1;1.5.):

Ariketa hau beraien artean jarraipen bat duten hiru ataletan banatua dago: Lehenengo atalean, ikasleei (lau pertsonetako taldeetan) komunikabide berri bat asmatzea ez ezik, material desberdina eskainiz hori sortzea proposatu zitzaien. Ariketaren bigarren atalean, behin talde bakoitzak bere asmakizunak eraikita, horiek iragartzeko iragarkiak sortzeko aukera eman zitzaien. Amaitzeko, ariketaren hirugarren atalean, ikasleek sortutako asmakizunen eta horiek iragartzeko sortutako iragarkien inguruko konparaketa egitea eskatu zitzaien.

1. *Atala: Komunikabideak sortzen:*

Ariketa hau aurrera eraman izan zen aurreko egunean, Uharteko Arte Garaikideko museora ateraldi bat egin genuen (Nafarroa). Bertan egindako bisita bi atal desberdinetan banatuta zegoen. Hasieran, Nafarroako lau artista garaikideek (Alfredo Zubiaur, Irantzu Antona, Nicolas Alba eta Fermín Jimenez Landa) egindako obra batzuk aztertu genituen. Obra hauek paisai mota desberdinen irudikapenak ziren.

Behin lanak aztertuta, ikasleei mota anitzetako materialak banatu zitzaizkien eta horiek erabilia lurretik zeruraino zihoazen pasaiak eraikitzea proposatu zitzaien (6 pertsonetako taldeetan).

Ikasleek oso erantzun positiboa izan zuten azken ariketa horren aurrean. Paisai desberdinak modu oso desberdinez irudikatzen zituzten beraien artean kooperatuz eta esperimentazioaren bitartez disfrutatzen zuten bitartean (ikus 3. eranskina).

Ateralditik itzuli ginean korroan eseri ginen eta ateraldiaren inguruan hizketan hasi ginen, ikasleek klasean berriz ere bigarren ariketa hori gauzatu nahi zutela esan zuten.

Hortaz, ariketa horretan oinarrituz, ondorengo jarduera garatu genuen:

Ikasleei lau pertsonetako taldeetan komunikabide berri bat asmatzea eta sortzea proposatu genien. Horretarako, ikasleei material ezberdina eskaini genien: forma desberdinetako kartoizko eta plastikozko kutxak, oihalak, plastikozko edalontziak, argizariak, errotulagailuak, klarionak, kolore eta tamaina desberdinetako kartulinak, egurra, artilea...Ariketa honen helburua ikasleen sormena esperimentazioaren bitartez ezagutza eraikitzea zen.

Behin asmakizunak sortuta, talde bakoitzari bere lana beste taldeei azaltzea proposatu zitzaien.

- Ikasleen erantzuna eta sortutako produkzioak:

*Ikasleak berehala hasi ziren guk eskainitako materialarekin esperimentatzen eta komunikabideak sortzen, hauek izan ziren talde bakoitzak egindako asmakizuna*

## **Taula 2.** Talde bakoitzak sortutako asmakizuna

<b>1. taldea : "Zapatilamovilman"</b>	
Irudia	Azalpena
	<p>Ikasleek mugikor arrunt baten funtzioak egiteko gai zen zapatila bat sortu zuten. Komunikabide honen abantaila mugikorra ahaztea, galtzea edo norbaitek lapurtzea askoz zailagoa zela zen, izan ere askoz zailagoa da zapatila bat galtzea mugikor bat baino. Desabantaileri zegokienez, berriz, norbaitek deituz gero zapatila kendu behar genuela zen, oinutsik geratuz. Bai eta gaizki usaindu zezakeela.</p>
<b>2. Taldea: "Teletelefonoa"</b>	
Irudia	Azalpena
	<p>Asmakizun hau telefonoa eta telebistaren artekoa fusioa da. Asmakizun honen bitartez, telebistan agertzen diren pertsonaiekin (marrazki bizidunekin, abeslariekin, aktore eta aktoresekin...) telefonoz deitzeko eta haiekin hitz egiteko aukera daukagu.</p>
<b>3. Taldea: "Irrabista"</b>	
Irudia	Azalpena

	<p>Asmakizun hau irrati eta telebistaren arteko fusioa da. Produktu honen bitartez, telebista ikusi dezakegu, irratiak beste kanaletan botatzen ari dutena azaltzen diguten bitartean. Modu horretan, iragarkiak noiz amaitzen diren edota programa edo pelikula bat noiz hasten den jakiteko aukera izango dugu. Asmakizun honen helburua denbora guztian kanalez aldatzen ez egotea da.</p>
<p><b>4. Taldea: "Kamisetaman"</b></p>	
<p>Irudia</p>	<p>Azalpena</p>
	<p>Kamiseta honek bi funtzio betetzen ditu. Batetik, kamiseta janzten duen pertsona hegan eramatea (pertsona horrek eskatzen duen lekura). Eta bestetik, kamisetak dituen begi eta aho handiei esker, hegan egiten ari den bitartean, lurtean zein airean gertatzen den guztiaz informatzen du (eguraldiaz, istiluak, antzerkiak, festak...).</p>
<p><b>5. Taldea: "Robot-telebista"</b></p>	
<p>Irudia</p>	<p>Azalpena</p>



	<p>Robot honek bere gorputzaren enborrean telebista bat dauka. Robotari ematen dizkiogun aginduen arabera, telebista gauza bat edo beste egingo du: kanaliz aldatuz,, bolumena igo, itzali, piztu...</p>
<p><b>6. Taldea: "Terfonoa"</b></p>	
<p>Irudia</p>	<p>Azalpena</p>
	<p>Asmakizun hau telebista eta telefonoaren arteko beste fusio bat da. Kasu honetan, telefono baten bitartez guk telebistan ikusi nahi dugun hori esateko aukera daukagu. Telebistak gure aginduak beteko ditu.</p>

## 2. Atala: Iragarkiak sortzen

Ikasleei aurreko saioetan zehaztutako iragarkien ezaugarriak kontuan hartuz (ikusi 7. Jarduera: Iragarkiak aztertzen), komunikabide berri horien iragarkiak sortzea proposatu zitzaien. Iragarkiak egiten hasi baino lehen, iragarkien ezaugarriak irakurtzea gomendatu genien (bere koadernoetan idatziak zituzten) eta arbelean idatzi genituen. Behin iragarkien ezaugarriak errepatatuta, ikasleek komunikabide berriak sortzeko zeuden talde berean jarri ziren ( lau pertsonetako taldeetan hain zuzen ere) eta material ezberdina eskaini genien (komunikabideak sortzeko erabilitako material berdina:forma desberdinetako kartoizko eta plastikozko kutxak, oihalak, plastikozko edalontziak, argizariak,

errotulagailuak, klarionak, kolore eta tamaina desberdinetako kartulinak, egurra, artilea.. ).

Behin iragarkiak sortuta, talde bakoitzak produktuak iragartzeko erabilitako estrategiak beste taldeei azaltzea proposatu zitzaion.

Ariketa honek bi noranzkoko helburua dauka: batetik, ikasleek helburu desberdin batzuk lortzeko (produktu bat saltzeko) estrategia jakin batzuk erabiltzeko gaitasuna garatzea (estrategia bisualak). Eta bestetik, eta aurreko honen bitartez, ikasleak bere egunerokotasunean estrategia hauek identifikatzeko gai izatea.

- Ikasleen erantzunak, erreakzioak eta produkzioak:

*Ikasleei ariketa proposatu eta berehala hasi ziren ikasleak iragarkiak sortzen. Zenbait eztabaida izan zituzten, talde berean proposamen ezberdinak sortatzen zirelako, eta ikasle batek baino gehiagok ariketa bakarrik egin nahi zutela esan zuten.*

**Taula 3.** Ikasleek egin zituzten asmakizunen iragarkiak eta azken horiek egiteko erabilitako estrategiak.

<b>1. taldea : "Zapatilamovilman"</b>	
Produktua	Iragarkia

	
<p>Estrategien azalpena</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ "Kolore biziak eta letra handiak erabili ditugu erosleen arreta deitzeko"</li> <li>▪ "Artilea erabili dugu "zapatilamovilman" suabea dela irudikatzeko, azken finean zapatila bat da!"</li> <li>▪ ""zapatilamovilman mugikor erosoena" leloa erabili dugu mugikor hau zapatila bat denez, barregarria izan daitekeela pentsatu dugu"</li> <li>▪ "Prezioa handiz jarri dugu jendeak ikusteko oso merkea dela"</li> </ul>	
<p><b>2. Taldea: "Teleteléfonoa"</b></p>	
<p>Produktua</p>	<p>Iragarkia</p>

	
<p>Estrategien azalpena</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ "Kolare biziak eta letra handiak erabili ditugu arreta deitzeko"</li> <li>▪ ""Doraemon<sup>32</sup>" aukeratu dugu jende askori "Doraemon" gustatzen zaiolako eta ikusteko produktu honen bitartez berarekin hitz egiteko aukera dutela ikusteko"</li> </ul>	
<p><b>3. Taldea: "Irrabista"</b></p>	
<p>Produktua</p>	<p>Iragarkia</p>

<sup>32</sup> Doraemon (jatorrizko japonieraz ドラえもん) "Doraemon" izeneko japoniar manga sail baten protagonista da, Fujiko F. Fujiok asmatutakoa.



Estrategien azalpena

- "Kolare biziko oihalak eta letra handiak erabili ditugu arreta deitzeko"

#### 4. Taldea: "Kamisetaman"

Produktua



Iragarkia




Estrategien azalpena

- "Kolore biziak eta letra handiak erabili ditugu pertsonen arreta deitzeko"
- "Oihalak erabili ditugu jendeak jakiteko kamiseta oihalezkoa dela eta suabea dela"
- "Bokata bat jarri dugu "bla bla bla" jarriz jendeak jakiteko kamisetak hitz egiten duela"
- "Super oferta" jarri dugu jendeak merkea dela pentsatzeko.
- ""Zure lagun berria" leloa erabili dugu, kamiseta hitz egiten duenez, zure laguna ere izan daitekeelako"

### 5. Taldea: "Robot-telebista"

Produktua



Iragarkia



### Estrategien azalpena

- "Kolore biziak eta letra handiak erabili ditugu erosleen arreta deitzeko"
- ""Tipu"<sup>33</sup> " marraztu dugu, jendeari gustatzen zaiolako, eta agian pentsatzen dute "Tipu"-k "robot-telebista" bat duela".

<sup>33</sup> 2014ko Sortzen jaiaren maskota, ikastetxe euskaldun publikoentzat dirua lortzeko ospatzen den jai.

- Oharra: Ikasle talde honek erabilitako estrategia hau kontuan hartuz beste ezaugarri bat gehitu genuen aurreko ariketan egindako "iragarkien ezaugarriak" izeneko zerrendari:

- Pertsonai ezagunen irudia erabiltzen dituzte produktuak saltzeko, nahiz eta errealitatean pertsonai horiek produktu horiek ez dituzten erabiltzen.

## 6. Taldea: "Terfonoa"

Irudia



Azalpena



Estrategien azalpena

- "Kolore biziak eta letra handiak erabili ditugu arreta deitzeko"
- " "Tipu" marraztu dugu, jendeari gustatzen zaiolako"
- "Prezioa handiz jarri dugu jendeak gure asmakizuna merkea dela pentsatzeko eta erosteko"

### 3. Atala: Asmakizunen eta iragarkien arteko konparaketa

Behin asmakizunen iragarkiak, zein horiek egiteko erabilitako estrategien azalpena eginda, ikasleei bere asmakizunaren eta horiek iragartzeko sortutako iragarkien arteko konparaketa egitea proposatu genien (lau pertsonetako taldeetan berriz ere).

Ariketa honen bitartez, ikasleak kontziente izango dira iragarkiek zerbitzuak edota objektuak saltzeko islatzen dituzten zerbitzu edota objektu horien irudikapena ez dutela beti errealitatearekin 100%-an bat etortzen.

- Ikasleen erreakzioak eta erantzunak:

*Talde bakoitzak bere iragarkiak aurkeztu eta horiek egiteko erabilitako estrategiak azaldu ondoren, ondorengo galdera egin genuen ikasleei:*

*- Konparatu zuek sortutako asmakizunak eta horien iragarkiak, errealitatean iragarkietan islatzen diren bezalakoak dira? (taldeetan hausnartzea eskatu genien)*

*Talde guztiek, bere produkzioen arteko konparaketa egiten hasi ziren eta orokorrean nahiko isilik geratu ziren*

*- Ez...gauza batzuk agian desberdinak dira -ikasleei kostatzen zitzaien desberdinak zirela onartzea.*

*- Zertan desberdintzen dira?*

*- Iragarkian politagoak dirudite- esan zuen batek*

*- Kolore batzuk ere desberdinak dira*

*- Eta tamaina- onartu zuen beste batek*

*- Gainera, errealitatean oso errez apurtu daitezke gure asmakizunak, baina iragarkietan egonkorragoak dirudite- gehitu zuen beste batek.*

*- Oso desberdinak dira- onartu zuen ikasle batek*

*- Orduan, iragarkietan ikusten ditugun produktuak beti saltzen diren produktuak bezalakoak direla uste al duzue?*

*Ikasle guztiek ezetz esan zuten eta bere erantzuna adibide desberdinen bitartez justifikatu zuten:*

*- Nik ikusi nuen "Barbie Sirena"-ren iragarki bat, horretan panpina uretan sartzen zutenean ilearen kolorea aldatzen zitzaion. Niri pan pina oparitu zidaten eta ilea uretan sarterakoan kolorez aldatzen zitzaion, arren, ez zitzaion hainbeste aldatzen, pixka bat soilik!- esan zuen ikasle batek*



---

*- Niri berdina gertatu zitzaidan magia joko batekin- gehitu zuen beste batek-iragarkiak bazirudien magia truku harrigarriak egin ahal zirela eta errealitatean tontakeri bat ziren!*

### **2.3. Ebaluazioa:**

Alde batetik, ikasle bakoitzaren ebaluaketa egingo dugu eta bestetik, proiektu berarena eta proiektua aurrera eraman duen irakaslearena:

#### *2.3.1. Irakaslearen eta proposamen didaktikoaren ebaluazioa*

Ikasleei eskaintzen zaien heziketa etorkizunean geroz eta kalitate hobetuegia izateko, ezinbestekoa da proiektuaren zein proiektua aurrera eraman duen irakaslearen ebaluaketa gauzatzea. Soilik honen bitartez, irakasleak bere alde ahulak zein indartsuak identifikatzeko aukera izan ez ezik, ahulguneak hobetzeko eta indarguneak indartzeko aukera ere izango du. Irakasleak autoebaluazioaren bitartez, bai arlo pertsonalean eta bai profesionalean hazteko aukera izango du.

Aipatzekoa da, irakaslearen garapenak, berak transmitituko duen hezkuntzaren kalitatean eragina duen heinean, garapen horrek ikasleen garapenean ere eragina izango du.

Bai irakaslearen eta bai proiektuaren ebaluazioa ahalik eta modu objektiboenean gauzatzeko, hauek ebaluazio-errubriken bitartez gauzatuko dira (Ikusi Eranskinak 4 eta 5). Gomendagarria da errubrikak osatu baino lehen, ikaskuntza prozesuan parte hartu duten beste pertsonen ikuspuntua ere ezagutza. Modu horretan, ikasleekin zein zenbait klaseetara joaten diren laguntza irakasleekin errubrikak kontuan hartzen dituen aspektuen inguruan hitz egitea oso positiboa izango litzateke.

#### *2.3.2. Ikasleen ebaluazioa*

Ikasleen ebaluazioa egiteko ebaluazio jarraia erabiliko dugu. Modu horretan, ez zaio azkeneko emaitzari garrantzirik emango, baizik eta egiteari, prozesuari eta horren esperientziari. Ikasleek jarduerak gauzatean izandako jarrera ere kontuan hartuko da, jarrera parte hartzailea eta aktiboa positiboki baloratua izango da. Modu berean, prozesu horretan ikasleek izandako garapena ere kontuan hartuko da.

Azken hori ebaluatzeko ezinbestekoa da aurrebaluazio bat egitea, hau da, ikasleen aurrezagutzak zein aurreiritziak identifikatzea. Hori dela eta, proiektu

hau ezagutza horiek identifikatzen dituen jarduera batekin hasten da. Azpimarratzeko da, ikasleen garapenaren ebaluazioaren bitartez, proiektuak ikasleengan izan duen eragina positiboa izan den edo ez ezagutzeko aukera izango dugula, bai eta modu berean, proiektu bera, zein irakaslearen lana ebaluatzeko ere.

Modu berean, ikasleek proiektuak proposatzen dituen helburuak lortu dituzten edo ez ebaluatuko da. Helburu bakoitza lortu den edo ez ziurtatzeko ebaluazio irizpide batzuk diseinatu izan dira ( ikusi Eranskinak 6 eta 7).

Ebaluaketak haur bakoitza ikaskuntza prozesuaren zein momentuan dagoen ezagutzeko aukera ematen digu, bai eta haur bakoitzaren zailtasunak zein indarguneak identifikatzeko aukera ere. Hauek identifikatuta, ikasle horiek errefortzu gehiago zertan behar duten ezagutu ez ezik, errefortzu hori eskainiko zaie.

### **3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA**


#### **3.1. Lan proiektua gauzatu baino lehen:**

Proiektu hau Nafarroako unibertsitate publikoko Giza eta Gizarte zientzien fakultateak Lehen Hezkuntzako graduko 8. seihilabetekoa (4. maila) gauzatzen ari garen ikasleei eskaintzen zaigun Eskola-praktikak III gauzatzen nuen bitartean aurrera eraman zen. Antsoaingo (Nafarroa) ikastetxe publikoan egindako praktika hauek 2013ko otsailaren 17an hasi eta maiatzaren 9an bukatu nituen, aldiz proiektu honek apirilaren 17an hasi eta maiatzaren 9an amaitu zen.

Hortaz, hasierako 2 hilabete horietan (otsailaren 17tik, apirilaren 17ra), Lehen Hezkuntzako 2.mailan Hezkuntza Artistikoa nola lantzen zen behatzeko aukera izan nuen. Horretarako, ikasleek lantzen zituzten materialak, zein horiek lantzeko modua aztertu nuen.

Hizkuntzen tratamendu integratua (euskara eta ingelesa), Natura, Gizarte eta Kultur ingurunea eta Hezkuntza Artistikoa (plastika eta musika), haien artean harremanatuak lantzea proposatzen zuten proiektuen bitartez latzen ziren (Barrena, Josi, & Maite, Txanela; Lehen Hezkuntza; Lehenengo Zikloa; 2. maila, 2003).

Proiektu horiek Hizkuntzen tratamendu integratuaren, zein Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen lanketari, Hezkuntza Artistikoaren lanketari baino garrantzia gehiago eskaintzen zieten. Errealitate hori, proiektuek diziplina bakoitza lantzeko proposatzen zituzten jarduera kopuruetan eta hortaz, diziplina bakoitzaren lanketari eskaintzen zitzairen denboran islatzen zen. Aipatzekoa da ere, Hezkuntza Artistikoa lantzeko proposatzen ziren jarduera horiek, arte bisualen (zeintzuk "plastika" bezala definitzen ziren) eta arte musikalen lanketarako bananduak zeudela. Hortaz horietako bakoitzari eskaintzen zitzaion denbora eta jarduera kopurua zatitua geratzen zen ere.



**Irudia 36.** Lehen Hezkuntzako 2. mailako Txanela proiektuak Hizkuntzen tratamendua, Natura, gizarte eta kultur ezagutza eta Hezkuntza Artistikoaren lanketarako (arte musikala eta bisuala) proposatzen dituen jarduera kopurua islatzen duen grafikoa.

Modu berean, Hezkuntza Artistikoaren lanketarako proposatzen ziren ariketen artean, oso gutxik lantzen zuten kultura bisuala. Proiektu hauek, irudi desberdinak interpretatzeko aukera eskaintzen duten arren, hauek oso gutxitan lantzen ziren errepresentazio kulturalak bezala. Modu horretan, kultura bisualaren lanketa oso azalekoa geratzen da.

Klasean, proiektu hauek Hezkuntza Artistikoa lantzeko proposatzen zituzten ariketak ez ziren beti aurrera eramaten eta hauen ordez, "plastika" saioetan, plastika lantzeko testuinguraturik gabeko ariketak planteatzen ziren. Ariketa hauen helburua teknika desberdinak ikastea izaten zen.

Modu horretan, askotan Hezkuntza Artistikoaren lanketa Arte plastikoaren<sup>34</sup> lanketara murriztuta geratzen zen.

<sup>34</sup>Arte plastikoa plastizitatea duten materialak teknika desberdinak erabilia egiten diren moldeatze lanen bitartez irudikapen desberdinak sortzean datzan Artearen esparru edo adarra da.

Ariketa hauek proposatzen zirenean, anitzak izaten ziren ikasleek bere inguruan izaten zituzten ereduak. Askotan, ariketa bat proposatzen zenean, irakasleak aurretik egiten zuen, berak sortutakoa erakutsi eta ondoren ikasleek sortzen zuten. Ikasleek irakasleak sortutakoa zuzentzat hartzen zuten, hortaz, irakaslearen lana erreproduzitzen saiatzen ziren, ikasleen sormena baldintzatua eta mugatua geratuz.

Modu berean, ikasleek zenbait diziplinetan (orokorrean Matematiketan edota Hizkuntzan) zailtasunak izaten zituztenean, "plastika" saioak horiek amaitzeko eskaintzen ziren. Aldiz, ikasleek Hezkuntza Artistikoko jardueraren bat amaitzen ez zutenean, ez zitzairen beste ikasgaietako denbora eskaintzen horiek amaitzeko.

Guzti hau kontuan hartuta, Gora Gutenberg! (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) proiektuaren egokitzapena egitea eta aurrera eramatea erabaki nuen. Aipatzekoa da, proiektu honek, irudi desberdinak interpretatzeko eta sortzeko aukera ematen zuela, bai eta momentu batean (jatorrizko proiektuaren 17. jardueran), zenbait obren garai historikoa kontuan hartuz, ikasleei hauek interpretatzea proposatzen zaiela. Hala ere, ariketa hauek oso eskasak zirela iruditzen zitzaidan eta hortaz, kultura bisualaren lanketa oso azalekoa zela (ikusi Eranskina 1).

### **3.2. Lan proiektua egiten ari nuen bitartean**

Behin Gora Gutenberg! (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) proiektuaren egokitzapena eginda, proiektua aurrera eramateko aukera eman zidan ikastetxeak. Esperientzia horren bitartez, ikasleek zein irakasleek dituzten erreakzioak kultura bisuala lantzerakoan ezagutzeko aukera izan nuen.

Batetik, zenbait ariketa proposatzen nituenen, irakasleak ikasleak ariketa hori gauzatzeko gai ez zirela esaten zidan, adibidez proiektuaren 4. ariketa proposatu nuenean ( ikusi 4. Jarduera: Emozioak irudikatzen). Ariketa zailegia zela aipatzen zuen eta ikasleei aukeratuak izan ziren emozio bakoitzaren irudikapenen eredu bat eskaintzea proposatu zidan (azkenean aurrera eraman ez genuena). Gauza bera gertatu zen proiektuaren helburuak aurkeztu nituenean, ikasleek zenbait ideiei garatzeko zailtasuna izan zituztela pentsatzen

---

zen (adibidez 3.HD: Ikasleek forma bisualak mundua ikusteko moduen eta errepresentazio kulturalen bide bezala ulertzea).

Hala ere, klaseko tutoreak zenbait ariketa diseinatzera ere lagundu zidala aipatzekoa da. Irakasleak ikasleen gaitasunak, nahiak, interesak, nik baino hobeago ezagutzen zituen heinean, bere ekarpenak ezinbesteko garrantzia izaten zuten. Horien bitartez, proiektua ikasleen identitateetara testuinguratua geratu ez ezik, ikasleentzat motibagarriak ziren ariketak sortu genituen.

Ikasleen erreakzioari dagokionez, oso positiboa izan zela azpimarratzekoa da. Haien jarrera parte hartzailea eta aktiboa izan zen. Proiektu honek ezagutzaren garapena esperimuntazioaren bitartez zein, elkarrizketetan oinarritutako hausnarketaren bitartez lantzen zuen heinean, proiektuaren helburuak lortzeko ikasleek jarrera hori edukitzea ezinbestekoa zen.

Modu berean, ikasleen jarrera aktibo hori lortzeko, garrantzitsua zen proposatzen zitzaizkien jarduerak haientzat motibagarriak izatea. Ondorioz, jarduerak diseinatzeko, ondorengo hiru estrategiak jarraitu genituen:

**Taula 4.** Jarduera motibagarriak diseinatzeko erabilitako estrategiak

ESTRATEGIAK	JARDUERAK							
	1. jarduera	2.jarduera	3.jarduera	4.jarduera	5.jarduera	6.jarduera	7.jarduera	8.jarduera
Ikasleek egindako proposamenak zein ekarpenak kontuan hartzea.		<b>X</b>		<b>X</b>				<b>X</b>
Ikasleengan intriga eta jakinmina sortzea.	<b>X</b>	<b>X</b>			<b>X</b>	<b>X</b>		
Ikasleen testuinguru hurbileko irudiak ere erabiltzea: Modu horretan, ikasleek motibatuak egon ez ezik, Arte Hezkuntzaren ikasketa beraienganeragina duen zerbait bezala ulertuko dute.	<b>X</b>		<b>X</b>			<b>X</b>	<b>X</b>	



---

Modu berean, azpimarratzeko da, 4. eta 6. ariketak proposatu genienean ( ikusi 4. Jarduera: Emozioak irudikatzen eta 6. Jarduera: Itxurak gaindituz), ikasle batzuk ea lantzen ari ginena plastika ote zen galdetu zutela harridurez. Galdera horrek ongi islatzen zuen askotan, lehen aipatua izan den moduan, Arte Hezkuntzaren ikaskuntza Arte Plastikoen ikaskuntzara mugatzen dela.

Bestetik, aipatzekoa da ere, jatorrizko proiektuak, (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) proiektua bera aurrera eramaten zen bitartean irratsaio bat prestatzea proposatzen zuela.

Irratsaio bat prestatu beharrean, telebista programa bat prestatzea proposatu nuen. Alde batetik, ikasleen testuingurutik hurbilago dagoen komunikabide bat delako eta bestetik, telebista saio bat prestatzeak, Hezkuntzaren tratamendua, Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ikaskuntza ez ezik, kultura bisualaren lanketa egiteko aukera aberasgarria eskaintzen duelako. Modu horretan, ikasleek bere egunerokotasunean kontaktu estua duten komunikazio horrekin kritikoak izatera ere ikasiko zuten.

Aldiz, irratsaio bat prestatzeak Hezkuntzaren tratamendua, Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ikaskuntza ahalbidetzen zuen arren, ez zuen kultura bisualaren ikaskuntza ahalbidetzen. Gainera, Ikasleek ez dute telebistarekin bezala duten kontaktu zuzena, proiektu honen 1. jardueran islatu zen moduan (ikusi 1. Jarduera. Komunikabideen kutxa).

Nire proposamena baloratua izan zen arren, ez zen aurrera eraman. Zikloko irakasleek azaldu zidaten beste urteetan irratsaioak prestatu zituztela eta oso emaitza onak lortu zituztela, bai eta telebista saio edo programa bat prestatzeak denbora gehiegi suposatzen zuela.

### **3.3. Proiektua gauzatu ondoren:**

#### *3.3.1. Proiektuaren ebaluazioa:*

Behin proiektua eginda, proiektuaren inguruko ebaluazioa gauzatu nuen. Honen bitartez, proiektuaren alde ahulak ezagutu ez ezik, hauek hobetzeko aukera izango dugu. Modu horretan, ikasleei eskaintzen zaien heziketa etorkizunean geroz eta kalitate hobeagoa izatea ahalbidetuko dugu (ikusi Eranskina 8).

### 3.3.2. *Proiektua hobetzeko proposamena:*

Momentura arte garatutakoa eta bizitutako esperientzia kontuan hartuz, aurrera eramán izan zen proiektua hobetzeko zenbait proposamena egitea beharrezkoa ulertzen dut:

#### 1. Ingurunearekin gehiago esperimentatzea:

Aurretik azaldu den bezala, proiektu honek ezagutzaren garapena bi bide desberdinetatik planteatzen ditu; elkarrizketetan oinarritutako hausnarketan bitartez eta esperimentazioaren bitartez.

Proiektu honen bitartez, ikasleek material desberdinekin esperimentatzeko aukera izan dute (material moldagarri desberdinekin, teknologia berriekin...), bai eta espazioan ere (Uharteko Arte Garaikideko museora joan ginean). Hala ere, espazioarekin egindako esperimentazioa urria izan dela pentsatzen dut.

Hori dela eta proiektu honen 3. eta 4. jardueren arteko fusioa egingo nuke espazioaren esperimentazioan oinarritutako jarduera berri bat sortuz:

Proiektuaren 4. jardueran, ikasleei paisai baten irudia (beste irudi batzuen artean) erakusten zaie, eta haiek irudi horrek zer komunikatzen dien azaldu behar dut (ikus 4. Jarduera: Emozioak irudikatzen). 3. jardueran, aldiz, ikasleei emozio desberdinak irudikatzea proposatzen zaie (ikus 3. Jarduera: Irudiak interpretatzen).

#### ▪ *Proiektua hobetzeko proposatzen den jarduera:*

Ikasleekin klasetik nahiz eskolatik aterako gara eta eskolatik hurbil dagoen leku batera joango gara<sup>35</sup>. Behin leku horretara iritsita, ikasleek bere ingurunekeo paisaia behatuko dute eta gehien gustatzen zaien txokora joango dira. Ondoren, guztiok isilik geratuko gara paisaia hori aztertzen, honek eskaintzen digun esperientzia estetikoak transmititzen dizkigun emozioak edo sentimenduak aztertzen. Modu horretan, kanpoko ingurumenarekin esperimentatu ez ezik, gure buruarekin ere esperimentatuz.

<sup>35</sup> Ezkaba ikastetxe publikoa Ezkaba menditik oso hurbil dago, modu horretan hara joatea proposatuko nuke.

Gero, paisai horrek transmititutako emozioa edo sentimendu hori hitz gutxitan papertxo batean idaztea proposatuko zaie ikasleei. Izenik gabeko papertxo horiek kutxa batean sartuko ditugu eta klasera itzuliko gara. Bertan, ikasle bakoitzak kutxatik papertxo bat aterako du ( banan banan eta ausaz) eta ozenki irakurriko du. Azkenik ikasle bakoitzari ondorengoa proposatuko zaie:

- a) Hartu duen papertxoak azaltzen duen emozioa edota sentsazioa klasean dauden material desberdinen bitartez irudikatzea.
- b) Klasean dauden aldizkari, liburu, egunkari desberdinetan, interneten (klasean ordenagailua egonez gero) papertxoak adierazten duen sentsazio edo emozio hori bera sortarazten dion irudi bat bilatzea.

Azpmarratzekoa da ikasle bakoitzak aukera horietako bat hautatu behar duela, hau da, ez da taldean hartuko den erabaki bat, erabaki indibidual bat baizik.

## *2. Irratsaio bat sortu beharrean telebista saio edo programa bat sortzea:*

Aurretik azaldu den moduan, proiektu amaierako jarduera bezala, telebista saio edota programa bat prestatzea irratsaio bat prestatzea baino egokiagoa dela ulertzen dut hurrengo bi arrazoiengatik:

- Telebista saio baten prestaketa kultura bisualaren ikaskuntza ahalbidetzen duelako.
- Ikasleek kontaktu gehiago dutelako telebistarekin irratiarekin baino
  - Proiektua hobetzeko proposatzen den jarduera :

Ikasleei telebista saio edo programa bat garatzea proposatuko zaie. Horretarako, asanblada bat egingo da klasean. Asanblada horretan, ikasleek bere iritziak, interesak besteekin konpartitzeko aukera ez ezik, ekarpen desberdinak egiteko aukera ere izango dute. Ikasle guztien proposamenak eta proiektuan zehar landutako eduki eta gauzatutako jarduera desberdinak kontuan hartuz, asanblada horretan telebista saioari buruzko erabaki desberdinak hartuko dira:

- Telebista saio mota: ze programa mota da? zer komunikatzen du? nori? nola?

- Telebista saioaren izena: erakargarria da? telebista saioaren izaerari erreferentzia egiten dio? originala da?
- Telebista saioaren atalak: Telebista saioaren izaeraren arabera
- Ikasle bakoitzak saio hori prestatzeko hatuko duen ardura edo papera: Aukeratutako telebista saioaren zein ikasle bakoitzaren izaeraren arabera
- Erabiliko ditugun baliabideak (materialak eta espazialak): Jadanik eginak daude? Guk eraikiko ditugu? ze materiala erabiliko dugu?
- Denbora: Zenbat denbora beharko dugu? ze saioetan egingo dugu? noiz aurkeztuko dugu?

Modu horretan, albistegi saio bat prestatu dezakegu adibidez:

Honetan, sortu ahal dituzten berri manipulatuak azalduko ahal dira (honek berri horiek sortzeko beste jarduera bat sortzea eskatzen du, horretarako proiektu honetako 5. jardueran oinarrituta) eta albisteen artean ikasleek asmatutako komunikabide berrien iragarkiak agertuko dira (8. jarduera sortutakoak). Ikasleen interesen arabera atal gehiago sartuko genituzke gure albistegi saioan.

### **3.4. Esperientziaren inguruko hausnarketa pertsonala**

Oraindik ere eraginkorra den formalismoaren zein, ikasleen gaitasun estetiko-imaginarioen konfiantza faltaren eraginez, Hezkuntza Artistikoaren ikasketa Arte Plastikoaren lanketara mugatuta geratzen da askotan. Errealitate honek bi problematika islatzen ditu:

Alde batetik, ikasleek ez dute aukera bera gaitasun batzuk edo beste batzuk garatzeko; ez dute aukera bera haien gaitasun logiko-matematikoak edota linguistikoak garatzeko edo, haien gaitasun estetiko-imaginarioak garatzeko. Desoreka hau gaitasun hauek lantzen diren ikasgaiei eskaintzen zaien ordu kopuruan islatzen da:

**Taula 5.** Ezkaba ikastetxe publikoaren Lehen Hezkuntzako 2. mailako gela baten ordutegia.

09:00-09:50	Irakurketa	H.a/Erligioa	Hizkuntza	Ingelesa	Hizkuntza
09:50-10:40	Ingurunea	Matematika	Ingelesa	Matematika	Ingelesa
<b>J O S T A L D I A</b>					
11:10-12:00	Matematika	Ingelesa	Gorputz heziketa	Ingurunea	Ingurunea
12:00-12:50	Hizkuntza	Gorputz heziketa	Matematika	Musika	Matematika (buruketak)
<b>E G U E R D I A</b>					
14:50-15:40	Ingurunea	Hizkuntza	Ingurunea	Matematika	
15:40-16:30	Ingelesa	Plastika	H.a/Erligioa	Plastika	

Ordutegi honen bitartez, ikus daiteke Hezkuntza Artistikoaren arloa bi diziplina desberdinen artean lantzen dela; plastika eta musika (zeintzuk bere orduak elkarren artean banatzen dituzten). Aldiz, Hizkuntza arloa, zein honi eskaintzen zaizkion ordu kopurua ez da ingelesa eta euskara arloetan bereizten. Modu berean, Matematikaren lanketari eskaintzen zaion garrantzia handia ere islatzen da. Aipatzekoa da, diziplina hauei eskaintzen zaien gainezko denbora zein arreta hori, beste diziplinei kentzen zaiena dena.

Modu horretan, ikasleek haien gaitasun logiko-matematikoak edota linguistikoak, gaitasun estetiko-imaginarioak baino garatuagoak izateak, ez du esan nahi ikasleek gaitasun horiek garatzeko trebezia gehiago dutenik, hori norberaren identitatearen arabera baita. Desoreka horrek islatzen duen bakarra, oraindik ere zenbait gaitasun garatzeari, beste batzuk garatzeari baino garrantzia gehiago ematen zaiola da.

Errealitate honen ondorioz, ikasle batzuk, beste batzuk baino aukera gutxiago izango dituzte bere gaitasunak deskubritzeko eta indartzeko, bai eta ondorioz, aukera gutxiago bizitzan ere.

Beste aldetik, problematika honek Hezkuntza Sistemak aurre egin beharko lukeen beste problematika bat islatzen du; Hezkuntza Artistikoaren ikaskuntza

estetiko-imaginatiboen garapenari soilik mugatzea (formari erreferentzia egiten diotenak).

Lan honetan garatu den bezala, egungo gizarte bisualak exijitzen duen Hezkuntza Artistikoa ez da gaitasun estetiko-imaginatiboen garapenera soilik mugatzen, errepresentazio kulturalen bitartez norberaren identitatea definitzea ahalbidetzen duen hezkuntza bat eskatzen duen heinean. Beste hitzetan, egungo gizarteak kultura bisuala exijitzen du.

Aurkeztutako bi problematika hauen ondorioz, matematikako ariketa konplexuak egiteko gai diren pertsona eleanitzak formatzen dira. Bai eta aldi berean, irudien bitartez balore zein ideologia desberdinak transmititzen dituen gizarte baten menpekoak diren pertsonak ere.

Kontuan hartu behar dugu, haurrak oraindik deskubritzen ari diren mundua ikertzeko gogo handia duten pertsonak direla; bere eskema kognitiboak zabaltzeko desioa duten pertsonak hain zuzen ere. Hauei eskaintzen zaien hezkuntza motaren arabera, ikasteko duten motibazio hori handitu edo txikitu egingo da.

Motibazio hori areagotzen dela ziurtatzeko dagoen modu bakarra, ikasleen identitatea kontuan hartzea da. Errealitate honek ikasleei komunikatzeko aukera eskaintzen duen Hezkuntza Sistema bat exijitzen du. Izan ere, komunikazio horren bitartez, ikasleen esperientziak, baloreak, interesak, anbizioak, beldurrak, hau da identitatea ezagutzeko aukera izango dugu. Azken finean, ikasleak beraiek dira zer, noiz eta nola ikasi nahi duten hobekien ezagutzen dutenak.

Modu berean, ikasleen identitatea kontuan hartzeak ikasleek gaitasun eta inteligentzia mota desberdinak garatzeko duten abilezian konfiantza duen Hezkuntza Sistema bat exijitzen du. Ondorioz, inteligentzia logiko-matematikoa eta linguistikoa ez ezik, ikasleek beste inteligentziak lantzeko aukera ere izango dute, modu horretan hezkuntza esanguratsu bat lortuz.

## CONCLUSIONES

El ser humano del siglo XXI vive en una sociedad cada vez más saturada de imágenes. Imágenes que las nuevas tecnologías de la información y comunicación, por y a través de diferentes motivos y maneras, han ayudado a divulgar.

En la medida en que estas imágenes son productos socioculturales a través de los cuales se proyecta la mirada con la que entendemos, miramos y representamos la realidad, estas también reflejan la sociedad y cultura que han influido en el desarrollo de esa mirada. Desde este punto de vista, una acción tan natural como el observar, no es un proceso tan inocente como a muchos y a muchas puede parecer en un principio, puesto que a través de este se nos transmiten los ideales y valores culturales impuestos en la sociedad de la época.

A través de las proyecciones que las formas visuales hacen sobre el mundo, los y las estudiantes no solo reciben lecciones sobre este, sino también sobre su papel en él y por lo tanto, lecciones sobre su propia identidad.

El Sistema Educativo debe satisfacer las necesidades de la realidad contemporánea y dar una respuesta a las nuevas formas de visualizar lo humano, lo que exige la inclusión de la cultura visual dentro de este.

Esta inclusión no solo supone la modificación de los contenidos y métodos del *currículum* actual, sino que también requiere el desarrollo de una nueva perspectiva educativa, la cual será redirigida hacia la importancia de considerar y definir la identidad de los y las estudiantes mediante las artes visuales. De esta manera, la Educación Artística será entendida como medio de representación social a través del cual, la identidad de los y las estudiantes es definida.

Desde este punto de vista, el objetivo de la Educación Artística va más allá de la creación o interpretación de las formas visuales. Abordar la cultura visual implica situar las formas visuales dentro de contextos sociales, culturales e históricos, así como en la subjetividad de la identidad, interés, miedos,

ambiciones e incluso imaginación de los grupos y las personas. De esta manera, la intención de la cultura visual será comprender la visualidad humana; la manera en que nos miran, miramos y nos miramos.

Este objetivo refleja la demanda de una educación que no solo supere lo explícito de la forma, sino que también se desarrolle en un campo de estudio de carácter interdisciplinario.

Como consecuencia, la enseñanza de la cultura visual no se limita a la formación de personas capaces de interpretar y comunicar a través del arte visual. La enseñanza de la cultura visual crea personas conscientes de que la experiencia visual que las imágenes de su alrededor les ofrecen, no es una mera vivencia emocional o estética, sino que también influye en la formación de su identidad.

Ser conscientes de esta realidad conlleva poner en duda la propia realidad. De esta manera, se crearían personas capaces de reflexionar sobre los ideales y valores que las formas visuales nos ofrecen y la manera en la que estas nos influyen. Lo que nos lleva a preguntarnos si realmente somos libres de elegir nuestra propia identidad o por lo contrario, estamos condicionados/as por la sociedad, lo que nos convierte en sujetos preexistentes.

Este pensamiento, hace posible crear personas invulnerables a los ideales hegemónicos que hoy en día gobiernan en nuestra sociedad; pensamientos sexistas, machistas, homófobos, racistas, tercermundistas, capitalistas y consumistas. De esta manera, a través del estudio de la cultura visual crearíamos personas capaces de pensar por sí mismas, personas libres.



---

## REFERENCIAS

### ▪ Libros y artículos:

- Barrena, S., Oiarbide, J., & Saenz, M. (2003). Gora Gutenberg. En *Txanela proiektua, 2. maila, Lehen Hezkuntza* (pág. 23). Donostia: Elkar.
- Castro, S. J. (2005). En defensa del cognitivismo en el arte. *Revista de Filosofía (Madrid)*, 30(1), 147-164.
- Efland, A. D. (2005). Infancia y cultura visual. In *Arte infantil y cultura visual* (pp. 51-69). Ediciones Eneida.
- Febrer, M., & Ventura, M. (2010). ¿ Es real la realidad?. *Cuadernos de pedagogía*, (400), 26-29.
- Freedman, K. (2002). cultura visual e identidad. *Cuadernos de pedagogía*, (312) 59-61.
- Goodman, N. (1976). *Los lenguajes del arte*. Barcelona: Seix Barral.
- Hargreaves, A. (1996). *Profesoradp, cutura y postmodernidad. Cambian los tiempos, cambia el profesorado*. Madrid: Morata.
- Hernández, F. (1999). *Sobre la importancia de la cultura visual en la educación escolar*.
- Hernández, F. (2002). Educación y cultura visual:repensar la educación de las artes visuales. *Aula de Innovación Educativa* 116.
- Kundera, M. (1992). *La insoportable levedad del ser*. Barcelona, RBA.
- Piaget, J. (1979). *la formación del símbolo en el niño*. Mexico: fondo de cultura económica.
- Rivière, A. (1990). *Albert Bandura y Richard H. Walters; aprendizaje social y desarrollo de la personalidad*. Alianza.
- Wetsch, J. V. (1988). *Vygotsky y la formación social de la mente*. Barcelona: Paidós.

### ▪ Páginas web:

- Argia.com*. (s.f.). Recuperado el 3 de 6 de 2014, de <http://www.argia.com/blogak/mikel-garcia/2008/10/10/36000-kilometroko-igogailua/>
- Planetacurioso.com*. (s.f.). Recuperado el 3 de 6 de 2014, de <http://www.planetacurioso.com/2012/01/24/10-anuncios-curiosos-realizados-en-escaleras-mecanicas/>
- Publicidadcomanche.blogspot.com.es*. (s.f.). Recuperado el 3 de 6 de 2014, de <http://publicidadcomanche.blogspot.com.es/2013/11/publicidad-en-lugares-extranos.html>

**▪ Películas:**

González Iñarritu, A. (Dirección). (2006). *Babel* [Película]

Kieslowski, K. (Dirección). (1981). *El azar* [Película]

---

## **ERANSKINAK**

Atal honetan aurkezten diren hainbat argazkietan, Ezkaba Ikastetxe Publikoko Lehen hezkuntzako 2. mailako zenbait ikasle zein hauen lanak agertzen dira. Aipatzekoa da, ikasle hauen gurasoek argazki hauek publikoak izateko baimena eman zutela.

**ERANSKINA 1.** Gora Gutenberg (Barrena, Oiarbide, & Saenz, Gora Gutenberg, 2003) jatorrizko proiektuak Hezkuntza Artistikoa lantzeko proposatzen dituen jarduerak.

**1.1) Ikerketa plastikoa: koloreen bidez ere komunikatzen gara (egokitua izan zen).**

8. jarduera	<b>IKERKETA PLASTIKOA: KOLOREEN BIDEZ ERE KOMUNIKATZEN GARA</b> (Osaqarria)
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<b>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</b> <b>3.4 Arte plastikoaren eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	
	3.3.1 Norberaren esperientzia abiapuntu hartuta, irudiek eta beste hainbat arte-adierazpenek komunikatzen dituzten ideiak, sentimenduak edo emozioak antzematen ditu. 3.4.5 Lan plastikoetan egiturek, koloreek eta formek dituzten funtzioen eta aukeren behaketa bideratua egiten du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, bakarka.
MATERIALA	Bi marrazki berdin, koloreak (tenperak, argizariak...).
<b>AZALPENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolore guztiek ez digute sentipen bera sortzen. Batetik, kultura bakoitzak ditu kolore jakin batzuekiko kode-mailako interpretazioak: gurean beltzak dolua adieraz lezake, zuriak, "garbitasuna". Txinatarrentzat gorria zorte onaren adierazlea da. Japonian zuria doluaren adierazle da... Eta bestetik, koloreek ingurugiroan sortzen dituzten sentrazioak ere desberdinak dira. Horren adierazle dira kolore "hotzen" eta kolore "beroek" arteko sailkapena.</li> <li>• Lehenik kolore hotzak eta beroak zeintzuk diren aztertuko dugu, talde handiko elkarrizketa baten bidez:             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zergatik esaten zaie batzuei kolore hotzak direla?</li> <li>○ Eta besteei beroak direla?</li> <li>○ Zer kolore erabiltzen dira ospitaletako hormak margotzeko?</li> <li>○ Eta etxeetakoak?</li> <li>○ Zuei ere sentrazio hori sortzen al dizue?</li> </ul> <p><i>Hotzak: urdinak, berdeak, moreak.</i> <i>Beroak: gorriak, laranja, horiak, granateak...</i></p> </li> <li>• Kolore hotzek eta kolore beroek sortzen duten sentrazioa hautemateko, plastikako lan bat burutuko dugu. Haur bakoitzak bi konposizio egingo ditu: konposizio bera; batean kolore hotzak bakarrik erabiliz eta bestean, kolore beroak.</li> <li>• Bukatzean, ikastolako pasabidean erakusketa antola dezakezue.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa ...</b>	

## 1.2) Egin dezagun gure telefonoa ( ezabatua izan zen).

13. jarduera	<b>EGIN DEZAGUN GEURE TELEFONOA</b>	(Hautazkoa)
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK		
3.4.6 Objektuen manipulazioa eta transformazioa egiten du, beste testuinguru batzuetan objektu horiek dituzten zenbait erabilera- eta adierazpen-aukera aztertzeko. Birziklapen-irizpideak ere kontuan hartzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka.	
MATERIALA	Jogurt-poteak, hariak, poteak apaintzeko materiala.	
<b>AZALPENA</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bakoitzak geure telefonoa egiteko, bina jogurt-pote eta hari luze bat besterik ez dugu behar.</li> <li>• Jogurt-poteak dekoratu ondoren, azpialdean zulotxo bat egingo diegu. Zulotxo horietatik haria sartu, korapiloa egin eta, haria tirante jarri ondoren... txutxu-mutxuak kontatzera!</li> </ul>		
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa ...</b>		

### 1.3) Artelana: Gernika eta urtebetetzea (ezabatua izan zen).

17. jarduera	<b>ARTELANA: GERNIKA ETA URTEBETETZEA.</b>	(Garrantzizkoa)
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</b>		
<b>3.4 Arte plastikoaren eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>		
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK		
3.3.1 Norberaren esperientzia abiapuntu hartuta, irudiek eta beste hainbat arte-adierazpenek komunikatzen dituzten ideiak, sentimenduak edo emozioak antzematen ditu.		
3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta bakarka.	
MATERIALA	Liburua 12	
<b>AZALPENA</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Utzi hurrei denbora-tarte bat, orrialdeko elementu guztiak (artelanak, izenburuak...) ondo behatzeko. Segidan, bideratutako behaketa egingo dugu.</li> <li>• Ondoren, hurrek artelanari buruz dituzten sententziak adierazteko, elkarrizketa bat bultzatuko dugu: <ul style="list-style-type: none"> <li><i>Irudiaren azterketa bideratzeko, irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea izango da. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu, beti ere gogoratuz ikasleen hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna garatu egiten dela hipotesiak trukatzeko eta ezagutzak birformulatzean. Ondorengoak izan litezke elkarrizketa bideratzeko galderak:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zer iruditzen zaizkizue artelan horiek? Gustatzen al zaizkizue?</li> <li>○ Zer sentipen komunikatzen digu lehenengo obrak? Eta bigarrenak?</li> <li>○ Nola irudikatu ditu artistak sentimendu horiek?</li> <li>○ Zer kolore erabili ditu?</li> <li>○ ...</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>• Segidan, artelanaren oinean jartzen duena irakurri eta hurrek botatuko hipotesiekin alderatuko dugu. Honekin batera, autoreen biografiak irakur ditzakegu gelan. <p><i>Picasso eta Chagall-en biografiak eranskinetan aurkituko dituzue.</i></p> </li> </ul>		
<b>ARTELANAREN ALDAERAK:</b>		
<b>1. Lerro kurbatuak artelanetan.</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Chagall-en pintura aztertzen badugu, margolariak lerro kurbatuak erabiltzen dituela ikusi ahal izango dugu.</li> <li>• Horretarako, koadroaren handitutako fotokopia bat hartu, gainean "tipula" papera jarri eta irudien lerro nagusiak kalkatuko ditugu.</li> <li>• Ondoren, haur bakoitzak nahi duen moduan, beste orri batean eta lerro kurbatuak erabiliz, nahi duen konposizioa egin dezake. Oharrarazi, era honetako lerroak erabiltzeak, nola leuntzen dituen irudiak.</li> </ul>		

## 2. Artelanaren eraldaketa

- Chagall-en artelanean edo maitasuna adierazten duen beste koadro batean oinarrituz, eraldaketa bat eginez, gure sentimenduen adierazpena irudikatuko dugu.
- Hartu artelana (liburukoa txiki samarra duzue horretarako, baina erabilgarria izan liteke dezente handituz) eta atera fotokopia bat (neurria kalkulatzeko, pentsatu argazki baten burua kokatu behar duzuela irudian azaltzen den buru bakoitzaren gainean) eta maite dugun pertsona baten argazkia (laguna, etxekoa...) eta gure argazkia kokatuko ditugu irudiko pertsonen buru gainean.
- Lana nahi dugun moduan apaindu eta aukeratutako pertsonari oparitu diezaiokegu.

*Lan hau egiteko, aurreko jardueran "tipula" paperean egindako lerroetan ere oinarritu gaitzke.*

## 3. Ikus 18. jarduera.

*Proposamen hauen artetik bat aukera dezakezue edo, guztiak egitea erabakitzen baduzue, kontuan hartu saio bat baino gehiago beharko duzuela.*

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa ...**

1.3.1) Materiala (Barrena, Josi, & Maite, Txanela; Lehen Hezkuntza; Lehenengo Zikloa; 2. maila, 2003):

## ▶ ARTELANAK


Artea ere komunikatzeko beste era bat da. Hemen beheko artelan hauetako bakoitzak sentipen eta emozio ugari komunikatzen dizkigu. Beha itzazu, eta hitz egin lagunekin ideia horien inguruan.



GERNIKA, 1936. PABLO PICASSO

Picassok herri xehearen suntsiketa eta samina adierazi nahi izan zuen Gernika artelanean.

Chagallek bere maitasunaren berri ematen du artelan honetan.



URTEBETETZEA, 1915. MARC CHAGALL





#### 1.4) Artelanen bidez komunikatzen (egokitua izan zen).

18. jarduera	<b>ARTELANEN BIDEZ KOMUNIKATZEN</b>	(Osagarria)
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>		
<b>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</b> <b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>		
<b>EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</b>		
3.3.6 Norberaren lanei buruzko azalpenak ematen ditu. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
<b>METODOLOGIA</b>		
<b>INTERAKZIO DIDAKTIKOA</b>	Bakarka.	
<b>MATERIALA</b>	Liburua 13.	
<b>AZALPENA</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrei, ideia, sentimendu, egoera edota sentsazio bat artelan baten bidez adierazteko eskatuko diegu.  <i>Gogoratu kolorearen erabileraz, lerroen erabileraz, konposizioaz... egin dugula lehenago gogoeta.</i></li> <li>• Artelana egin ondoren, haur bakoitzak zer komunikatu nahi izan duen adierazi beharko du esaldi baten bidez. Honako estruktura edo antzekoa erabil dezakete:  <i>Artelan honen bidez ..... (r)en sentimendua adierazi nahi izan dut.</i></li> <li>• Izenburu baten pean ("Artea, komunikazio-tresna" adibidez) ikastolako pasabidean haur guztien lanak (bakoitzak adierazi nahi izan duena aldamenean idatzirik duela) kokatuko ditugu edota guztien bilduma egingo dugu; nahi izanez gero, haurrek txandaka etxera eraman dezakete, aurreraxeago erakusketan jartzeko, txikiei erakusteko...</li> </ul>		
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa ...</b>		

1.4.1. Materiala (Barrena, Josi, & Maite, Txanela; Lehen Hezkuntza; Lehenengo Zikloa; 2. maila, 2003):



▶ Pentsa ezazu ideia, sentimendu, egoera edota sentsazio bat, eta saia zaitez, nahi duzun teknika erabiliz, artelan baten bidez adierazten.



• Zer komunikatu nahi izan duzu artelan honekin?

.....

.....




13  
hamahiru

## 1.5) Barrehiztegia (egokitua izan zen).

25. jarduera	<b>BARREHIZTEGIA</b>	(Osagarria)
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>		
<b>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b> <b>3.4 Arte plastikoaren eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>		
<b>EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</b>		
1.6.1 Gaia inferitzen du. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
<b>METODOLOGIA</b>		
<b>INTERAKZIO DIDAKTIKOA</b>	Talde handian eta bakarka.	
<b>MATERIALA</b>	Liburua 16.	
<b>AZALPENA</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasteko, irakasleak komunikabide batzuei buruz Joxan Ormazabalek egindako definizio xebleak irakurriko ditu, eta hurrek zein den asmatu beharko dute. Asmatzea kostatzen bazaie, bai/ez erantzuna onartzen duten galderak egin ditzakete.</li> <li>• Ondoren, guztion artean komunikabide berri bat asmatzeari ekingo diogu, horretarako talde handiko elkarrizketa bideratuko dugu galdera-mota hauen bidez:             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zer egingo du gure komunikabide berriak?</li> <li>○ Nork erabili ahal izango du?</li> <li>○ Zer forma izango du?</li> <li>○ Zer izen ipiniko diogu?</li> <li>○ ...</li> </ul> </li> <li>• Segidan, guztion artean, definizioa idatziko dugu arbelean eta hurrek bertatik kopiatuko dute.</li> <li>• Ondoren, asmatutakoaren marrazkia egin beharko du ume bakoitzak.</li> <li>• Bukatzeko, hurrek beren artean alderatuko dituzte marraztutakoak.</li> </ul> <p><i>Orrialde honetako mikrofonoaren irudia 26. jarduerarekin lot dezakezue, irratsaiorako txisteen lanketarekin, alegia.</i></p>		
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa ...</b>		

1.5.1. Materiala (Barrena, Josi, & Maite, Txanela; Lehen Hezkuntza; Lehenengo Zikloa; 2. maila, 2003):




► Komunikabideei buruz Joxan Ormazabal idazleak definizio xebleak egin ditu bere BARREHIZTEGIAN. Irakurri definizio horiek, eta, ondoren, asmatu zeuk etorkizunean egon daitekeen komunikabide bat, jarri izena eta definitu zeure erara.

**Irratia:** ahoa bai, baina belárririk ez duen tresna.  
**Telebista:** denbora alferrik galtzeko ere balio duen ikusentzungailua.  
**Egunkaria:** goizean jaio eta gauean hiltzen den liburu erraldoia.

Nik asmatutako komunikabideak..... du izena.  
 .....  
 .....

Egin ezazu asmatutako tramankuluaren marrazkia



**ERANSKINA2.****Taula 4.** Jarduera bakoitzak lantzen dituen kompetentzi

	K1	K2	K3	K4	K5	K6	K7	K8
1. Komunikabideen kutxa	X			X		X	X	X
2. kono magikoa	X		X		X	X	X	X
3. Irudiak interpretatzen	X			X	X	X	X	X
4. Emozioak irudikatzen			X		X	X		X
5. Gezurraren jolasa	X			X	X	X	X	
6. Itxura gaituz	X			X	X	X	X	X
7. Iragarkiak aztertzen	X			X		X	X	X
8. Gure asmakizuna	X		X	X	X	X		X

## ERANSKINAK 3. Uharteko museo garaikidera egindako ateraldia

### 3.1) Prozesua



Irudia 38. Prozesua I



Irudia 39. Prozesua II



**Irudia 40. Prozesua III**



**Irudia 41. Prozesua IV**

### 3.2) Emaidzak



**Irudia 42. Emaidza I**



**Irudia 43. Emaidza II**





**Irudia 44. Emaidza III**



**Irudia 45. Emaidza IV**

**ERANSKINA 4. Ebaluazioa****4.1) Proiektuaren ebaluazioa:****Taula 5.** Gauzatutako proiektua ebaluatzeko errubrika

	<b>EZ</b>	<b>Ez bere osotasunean</b>	<b>Bai</b>
Planteatutako helburuak lortu dira?			
Planteatutako edukiak landu dira?			
Ikasleen aurrezagutzak kontuan hartu dira?			
Planteatutako jarduerak haurren behar, identitate eta interesak kontuan hartu dituzte?			
Ikasleek zer, noiz eta nola ikasi erabakitzeko aukera izan dute?			
Jarduerari eskainitako denbora egokia izan da?			
Ikasleentzat atseginak eta esanguratsuak izan dira planteatutako jarduerak?			
Eskainitako baliabideak egokiak/nahikoak izan dira?			
Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berrian oinarritutako metodologia erabili da?	Irudiak errepresentazio kultural bezala landu dira?		
	Ikasleen identitatea kontuan hartu ez ezik, forma bisualen lanketaren bitartez hauek definituak izan dira?		
	Ikuspuntu/ azterketa formalista gainditu da?		
	Diziplinarteko izarako ikasketa eremua erabili izan da?		

## 4.2) Irakaslearen auto-ebaluazioa

**Taula 6.** Irakaslea auto-ebaluatzeko errubrika:

		Bai	Batzuetan	Ez
Irakaslearen papera aktiboa izan da?				
Ikaslea bakoitzaren identitatea kontuan hartu ditu?	Aurrezagutzak			
	Beharrak			
	Nahiak eta interesak			
	Kultura			
Hausnarketak bultzatu ditu?				
Malgutasunez jokatu du?				
Jarduerak azaltzerakoan ulerkorra izan da?				

### 4.3) Ikasleen ebaluazioa

**Taula 7.** Proiektuak proposatzen dituen helburuak ebaluatzeko erabilitako ebaluazio irizpideak, zein hauek proiektuak proposatu dituen jarduerekin duen harrena.

Helburu didaktikoak	Ebaluazio irizpideak	Jarduerak
1HD. Ikasleak forma bisualak informazio desberdinak transmititzeko bide bezala ulertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Forma bisualak komunikabide bezala identifikatzea.</li> <li>- Forma bisualen bitartez emozioak komunikatzea.</li> <li>- Forma bisualen interpretazio desberdinak egitea.</li> </ul>	1, 2, 3, 4, eta 7. jardueren bitartez.
2HD. Forma bisualek eskaintzen diguten informazioa, perspektiba, testuinguru zein norberaren izaeraren arabera modu desberdinean interpretatua izan daitekeelako ideia garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Forma bisual bera testuinguru desberdinetan kokatuz esanahi desberdinak eraikitzea.</li> <li>- Forma bisual bera perspektiba desberdinetatik aztertuta esanahi desberdinak sortzea.</li> <li>- Forma bisualak autonomiaz interpretatzea.</li> </ul>	1, 2, 3, 4, 6 eta 7. jardueren bitartez
3HD. Ikasleek forma bisualak mundua ikusteko moduen eta errepresentazio kulturalen bide bezala ulertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Forma bisualetan ezaugarri kulturalak identifikatzea.</li> <li>- Bere errealtatea forma bisualen interpretazioetan produkzioetan islatzea.</li> <li>- Irudiak informazio bat ulertzeko/ziurtatzeko duen</li> </ul>	2, 3, 4, 5 , 6. 7 eta 8.jardueraren bitartez

	indarraz kontziente izatea.	
4HD. Ikasleek iragarkien ezaugarriak, hartzen duten espazio handia, helburuak eta azken hauek lortzeko erabiltzen dituzten estrategia desberdinak ezagutzea, bai eta horiek norbanakoaren helburuetarako erabiltzen jakitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragarkien estrategiak erabiliz iragarkiak sortzea.</li> <li>- Iragarkien helburuak zein horiek lortzeko erabilitako estrategiak identifikatzen ditu.</li> <li>- Iragarkien estrategiak erabiliz iragarkiak sortzea.</li> </ul>	7 eta 8. jarduerak
5HD. Ikasleek jarrera kritikoa sustatzea forma bisual baten aurrean, formak eskaintzen digun itxura gaindituz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Forma bisualaren ikerketak azterketa formalista gainditzea.</li> <li>- Forma bisual batek irudikatzen duen errealitatea zalantzan jartzea.</li> <li>- Forma bisual baten eraketa prozesuaren inguruko hausnarketa egitea.</li> </ul>	1, 2, 3, 5, 6, 7 eta 8. jardueren bitartez.

Taula 8. Ikasleak ebaluatzeko errubrika

Ebaluazio irizpideak	Ikasleek forma bisualak komunikabide bezala identifikatzen ditu.	Forma bisualen bitartez emozioak komunikatzeko gai da.	Forma bisualen interpretazio desberdinak egiten ditu.	Forma bisual bera testuinguru desberdinetan kokatuz esanahi desberdinak erakitzen ditu.	Forma bisual bera perspektiba desberdinetatik behatuz esanahi desberdinak erakitzen ditu.	Forma bisualak autonomiaz interpretatzen ditu.	Forma bisualetan ezaugarri kulturalak identifikatzen ditu.	Bere errealitatea forma bisualen interpretazioetan/produzioetan islatzen ditu.	Irudiek informazio bat ulertarazteko/ziurtatzeko duen indarraz kontzientea da.	Iragarkien ezaugarriak identifikatzen ditu.	Iragarkien helburuak zein horiek lortzeko erabilitako estrategiak identifikatzen ditu.	Iragarkien estrategiak erabiliz iragarkiak sortzen ditu.	Forma bisualak azterketa formalista gaintzen du.	Forma bisual batek irudikatzen duen errealitatea zailtzan jartzen du.	Forma bisual eraketa prozesuaren inguruko hausnarketa egiten du.	
Jarduerak	1.	4.	2, 3, 7.	1, 2.	1, 2, 6.	2, 3, 4, 7.	3	2, 3, 4.	5, 8, 7	7.	7.	8.	1, 3, 5, 6, 7.	5, 6, 7, 8.	5, 6, 7.	
Ikasleak																
1.																
2.																
3.																
4.																
5.																
6.																
7.																
8.																
9.																
10.																
11.																

<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	Ikasleek forma bisualak komunikabide bezala identifikatzen ditu.	Forma bisualen bitartez emozioak komunikatzeko gai da.	Forma bisualen interpretazio desberdinak egiten ditu.	Forma bisual bera testuinguru desberdinetan kokatuz esanahi desberdinak erakitzen ditu.	Forma bisual bera perspektiba desberdinetatik behatuz esanahi desberdinak erakitzen ditu.	Forma bisualak autonomiaz interpretatzen ditu	Forma bisualetan ezaugarri kulturalak identifikatzen ditu.	Bere errealitatea forma bisualen interpretazioetan/ produkzioetan islatzen ditu	Irudiek informazio bat ulertarazteko/ziurtatzeko duen indarraz kontzientea da.	Iragarkien ezaugarriak identifikatzen ditu	Iragarkien helburuak zein horiek lortzeko erabiltako estrategiak identifikatzen ditu.	Iragarkien estrategiak erabiliz iragarkiak sortzen ditu	Forma bisualak azterketa formalista gaintzen du.	Forma bisual batek irudikatzen duen errealitatea zalantzan jartzen du	Forma bisual eraketa prozesuaren inguruko hausnarketa egiten du.
<b>JARDUERA K</b>	1.	4.	2, 3, 7.	1, 2.	1, 2, 6.	2, 3, 4, 7.	3	2, 3, 4.	5, 8, 7	7.	7.	8.	1, 3, 5, 6, 7.	5, 6, 7, 8.	5, 6, 7.
<b>IKASLEAK</b>															
12.															
13.															
14.															
15.															
16.															
17.															
18.															
19.															
20.															
21.															
22.															
23.															
24.															

**ERANSKINA 5.****Taula 5.** Proiektuaren ebaluazioa

	<b>EZ</b>	<b>Ez bere osotasunean</b>	<b>Bai</b>
Planteatutako helburuak lortu dira?			<b>x</b>
Planteatutako edukiak landu dira?			<b>x</b>
Ikasleen aurrezagutzak kontuan hartu dira?			<b>x</b>
Planteatutako jarduerak haurren behar, identitate eta interesak kontuan hartu dituzte?			<b>x</b>
Ikasleek zer, noiz eta nola ikasi erabakitzeke aukera izan dute?		<b>x</b>	
Jarduerari eskainitako denbora egokia izan da?		<b>x</b>	
Ikasleentzat atseginak eta esanguratsuak izan dira planteatutako jarduerak?			<b>x</b>
Eskainitako baliabideak egokiak/nahikoak izan dira?		<b>x</b>	
Hezkuntza Artistikoaren ikuspuntu berrian oinarritutako metodologia erabili da?	Irudiak errepresentazio kultural bezala landu dira?		<b>x</b>
	Ikasleen identitatea kontuan hartu ez ezik, forma bisualen lanketaren bitartez hauek definituak izan dira?		<b>x</b>
	Ikuspuntu/ azterketa formalista gainditu da?		<b>x</b>
	Diziplinarteko izarako ikasketa eremua erabili izan da?		<b>x</b>



